

#22 / 2021 AZAROA

arteka

**Ziklo
berri
bat**

GEDAR

Azala
Gaizka Azketa
Etxeberria

«Belaunaldi gazteak zeuden horren guztiaren zentroan, haiek zituztelako kritika hori azken bururaino eramateko baldintza egokienak. Horrenbestez, elkarlotuta gertatu ziren estrategia politiko jakin baten amaiera eta koiuntura ekonomiko zehatz baten bukaera»

06

EDITORIALA
ARTEKA

Gertakizuna
iraunkortzen

10

ERREPORTAJEA
ARTEKA

Berdinketaren amaiera:
Estatuaren behin betiko
ofentsiba ENAMen aurka

32

KOIUNTURA POLITIKOA

Aitor Martinez

**Ezker Abertzalearen
porrot historikoaren
ondorioak**



ELKARRIZKETA

Aingeru Otxotorena, Dorleta Agiriano eta Isaak Ziaurritz

Antolakuntza komunistarantz partitu ginenekoa

Gertakizuna iraunkortzen

EDITORIALA

Duela bospasei urte tradizio politiko bat auzitan jartzen ari ginen gutako asko Euskal Herrian, eta horretan jarraitzen dugu gaur-gaurkoz. Borondate iraultzaile batek gidatutako kezka zen hura, frogatzen ari zelako desegokiak zirela politika egiteko genituen erreminta teorikoak nahiz praktikak.

Plano orokor batetik begiratuta, esan dezakegu bi faktore elkarlotu zirela garai hartan. Alde bate-tik, krisi ekonomikoak eraginda, pixkanaka desegiten hasi ziren ertain klaseko kultura –posmodernismoa, interklasismoa eta abar– eta erdi mailako klasearen egituraketa soziala. Prozesu hori, neurri handi batean, gazte belaunaldien artean ari zen errotzen. Langileriaren interesak defendatzeko, kultura politiko estatulista-parlamentarioa eta interklasista jadanik ez ziren eraginkorrak, eta deskonposizio horren lehen adierazpen teorikoak ere ari ziren agertzen. Hastapenetako gida-liburu izan ziren horiek guretzat. Testuinguru horretan, ordea, Ezker Abertzaleak iruditegi erradikala alboratzeko erabakia hartu zuen, baita bere jardunaren erdigunea instituzio burgesetan kokatzeko erabakia ere. Bi aldagai horien arteko loturak –proletarizazioa, batetik, eta Ezker Abertzalearen asimilazioa, bestetik– Ezker Abertzaleari zein proposamen politiko interklasista orori kritika integral bat egiteko tes-

tuinguru aproposa sortu zuen. Belaunaldi gazteak zeuden horren guztiaren zentroan, haiek zituztelako kritika hori azken bururaino eramateko baldintza egokienak. Horrenbestez, elkarlotuta gertatu ziren estrategia politiko jakin baten amaiera eta koiuntura ekonomiko zehatz baten bukaera.

Duela bospasei urte arte, «ofizialismoak» kontrolatzen zuen, zuzenean edo zeharka, Euskal Herriko ezker militantearen panorama, ia bere osotasunean. Nolakoa zen, ordea, Ezker Abertzalea? Ezker Abertzalearen garaiko funtzionamenduari erreparatuta, dogmatismoak, hierarkiek eta itxitasunak ezaugarritutako espazio politiko zela esan daiteke. Apenas eztabaidatzen zen han, prozesu horiek zuzendaritza auto-legitimatze funtzioa betetzen zuten, eta hierarkien pisuak arrazoi bidezko argudiaketa ordeztzen zuen. Gure ikuspegia bestelakoa zen, ordea: militante helduagoen sakrifizioak aitor-tuta ere, haien «merituak» ezin ziren erabili zenbait posizio beren kabuz legitimatzeko, tesi ezberdinen arteko eztabaida arrazionala ordezkazezina baitzen. Egoera horrek espazio politiko horrekiko etsipena eragin zuen gudan, denboran mailakatuta eta norbere esperientzia pertsonalaren arabera. Laburki esanda, Ezker Abertzalea ez zen estrategia sozialista berritu bati bidea irekitzeko espazio egokia, oinarri militantearen gehiengoa testuinguru politi-

***Eremu politiko
ezberdinetan –ez bakarrik
Ezker Abertzaleko
antolakundeetan–
lanean ari zen jendea
elkartzetik jaio zen geroago
Mugimendu Sozialista
izendatu duguna, «minimo»
politiko batzuk adostu
eta gero: interklasismoari
kritika, eta proletalgoaren
independentzia politikoaren
arabera jardutea***

ko berrian eroso zegoelako –ertain klasekoa baita, neurri handi batean– eta eztabaidarako prestutasun falta zegoelako.

Eremu politiko ezberdinetan –ez bakarrik Ezker Abertzaleko antolakundeetan– lanean ari zen jendea elkartzetik jaio zen geroago Mugimendu Sozialista izendatu duguna, «minimo» politiko batzuk adostu eta gero: interklasismoari kritika, eta proletalgoaren independentzia politikoaren arabera jardutea. Ordutik, lehenengo premisa ardatz hartuta eta bigarrena jardun politikoaren oinarri izanda aritu gara lanean. Oinarri horiek gure gain hartuta, Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduarekin, Ezker Abertzalearekin eta herri mugimenduaren oinarri nagusi batzuekin ari ginen hausten, nahi eta nahi ez. «Minimo» horien arabera jardutea ez da gauza erraza; herri mugimendua, adibidez, menpekotasun interklasista horren ageriko adibidea da. Gure ustez, proletalgoaren jardun independenteak bi aspektu lotzen ditu batez ere: ideologia-independentzia eta antolakuntza-independentzia. Lehenengoa ez da auzi teoriko batera mugatu behar, inola ere. Ideologia-independentziak ikuspegi –kultura– politiko komunista eratzeari eta hori proletalgoaren artean nagusi bihurtzeari egiten dio aipamena. Antolakuntza independentea, berriz, kapitalismoaren bitarteko orokorreko menpekotasunik gabe garatu behar

“

*Eztabaida teorikoen bitartez
gure ikuspegiak mamitu
ditugu, baita diskurtso
propioaren hutsuneak
identifikatu eta marko
teoriko apropos batekin
ebazteko aukerak ireki ere*

Berrikuntzen artean aipagarriena da, agian, sozialismoa prozesu modura ulertu izana. Horrekin, boterea hartu osteko auzi modura kokatu beharrean, auzi iraunkor gisa kokatu dugu harreman ekonomikoen iraultzea; alegia, eginbehar iraunkor gisara


da derrigor: soldatapeko lanarekiko, diruarekiko, estatu/burokraziarekiko eta aparatu ideologiko kapitalistekiko menpekotasunik gabe, alegia. Horrek guztiak borondate militante irmo, arrazional, konprometitu eta etiko bat eskatzen ditu. Horrela ulertzen dugu guk komunismoa.

Ordutik hona lau bat urte igaro dira, eta gure jarduna ikasketa prozesu bat izan da une oro. Erraz azaltzeko, kritika bitarikoa izan dela esan dezakegu; kanpora eta barrura begirakoa. Gutaz haragoko posizio politikoei egindako kritika agendari egokituta egon da; eztabaida teorikoen bitartez gure ikuspegiak mamitu ditugu, baita diskurtso propioaren hutsuneak identifikatu eta marko teoriko apropos batekin ebazteko aukerak ireki ere. Zenbaitek zabaldu nahi izan duenaren aurka, gure jardunaren inguruko kritika ere etengabea izan da urte haue-tan zehar. Izan ere, hastapenetan erreferente izan genituen zenbait ikuspegi teoriko kritikatu ditugu –denborarekin batzuetara ere itzuli gara–, zenbait dogma hautsi ditugu –identitarismoa, fidel-tasun irrazionala, lanaren banaketarekiko aurreiritzi anarkista, jardun demokratikoarekiko mesfidantza, asanblearismoa eta abar–, eta antzeko erronkak di-tugu orain ere. Horrenbestez, kritikak ez ditugu gai-lentasun moral gisa ikusi behar; zentzu politiko eta taktikoan ulertu behar ditugu.

Azken urteei buruzko balorazio bat eginda, Mu-gimendu Sozialistaren hainbat bertute eta arrisku zerrendatuta amaituko dugu zenbaki honetako editoriala. Asmatu dugu, besteak beste, grina iraultzailea mantentzen eta erreproduzitzen. Ahalegin etengabea egin dugu ikuspegi komunista hedatu dadin, gero eta jende gehiago batuz militantziara eta etengabe berrituz gure antolakuntza-bitartekoak. Horretarako, anbizioz eta inteligentziaz –propor-tzionaltasunez– jarduten saiatu gara, baita gure es-trategiari berrikuntza teorikoak gehitzen ere. Berri-kuntzen artean aipagarriena da, agian, sozialismoa prozesu modura ulertu izana. Horrekin, boterea hartu osteko auzi modura kokatu beharrean, auzi iraunkor gisa kokatu dugu harreman ekonomikoen

iraultzea; alegia, eginbehar iraunkor gisara. Horrek antolakuntza-eredua interpelatzen du zuzenean, abangoardia intelektual izatetik abangoardia inte-gral izatera igaroko bailitzateke alderdia. Amaitze-ko, ohartarazpen bat: kontuz ibili behar dugu gure baitan ixtearekin, irudimen politikoa izatea buru-zagi gutxi batzuen kontua dela pentsatzearekin, an-bizio faltarekin edota inizatiba galtzearekin. Balio horiek guztiak modu egokian administratu izanak eraman gaitu, urte gutxian, indar politiko –xume– bilakatzera, eta are beharrezkoagoak izango dira hemendik aurrera. Argi gera dadila, bestalde, komu-nismoa egingarri izan dadin, berau proiektu inter-nazionala izatea dela baldintza, eta ondorengo ur-teetan bide horretan egin beharko dugula ekarpena.

Zenbaki honek balio beza azken urteetako gara-pena eta egungo erronkak hobeto konprenitzeko. /



ERREPORTAJEA

Berdinketaren amaiera: Estatuaren behin betiko ofentsiba ENAMen aurka

Testua
ARTEKA

Irudia
**Lander Moreno
Lizarraga**

Erreportaje honek 2007 eta 2011 urteen artean Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren (ENAM) baitan garatu zen barne-prozesu politikoaren erradiografia orokorra egingo du. Urte haietako gertakarien ondorio izan dira, besteak beste, Euskadi Ta Askatasunak borroka armatua alboratzea, Ezker Abertzalearen erabateko integrazio instituzionala nahiz Euskal Herriko egungo testuinguru politikoa. Eztabaida ugari sortu ditu bost hamarkadaz estrategia armatua sostengatu duen sektore sozial oso batek bere ezaugarri nagusienetarikoa alboratzeak. Prozesu konplexu haren ondorioez asko hitz egin den arren, nahiko ezezaguna da Ezker Abertzaleak bizi izan zuen barne trantsizio politikoa bera.

Eskuarki, borroka armatuaren desintegrazioaren inguruko hiru narratiba eraiki dira euskal gizar-tean: *hegemonikoa*, Ezker Abertzale *ofizialistarena* eta Ezker Abertzale *disidentearena*, nolabait esatearren. Lehen ikuspegia erabat erreakzionarioa da, eta erakunde armatuaren kapitulazioa «terrorismoari demokrazia gailendu zitzaiolako» gertatu zela dio. Bigarrenak Ezker Abertzalearen zuzendaritza burutsua eta barne-pertsuasio politikorako halako boluntarismo miresgarri bat ditu prozesuaren gakotzat. Horren guztia- ren emaitza Ezker Abertzalea «bide egokian» kokatzea izan zela interpreta- tzen du. Azkenik, egungo Ezker Aber- tzale *ofizialistarekin* kritikoa den jarre- ra legoke, *estrategia aldaketa* deiturikoa sustatu duten zuzendaritza politikoak «traidoretzat» jotzen dituen. Besteak beste, ENAMen baitan kolpea jo eta mugimenduaren printzipioekin hau- tsi izana egozten diete. Aurreiritziak aurreiritzi, euskal gatazkaren historia malkartsuak sakontasun analitikorako

eta kritika politikorako abagunea eman behar liguke, topikoetatik harago. Bo- rroka armatuaren fasea nola itxi zen ikertzeko, ondoko galderak abiapuntu interesgarria izan daitezke:

1. ENAM osatzen zuten antolakun- deen baitan desadostasunik egon zen?
2. ETArek eta Ezker Abertzalearen artean desadostasunik egon zen?
3. Desadostasunok egotekotan, nola kudeatu ziren barne-mailan?

KAS PARADIGMA

Ariketa historiografikoari heldu aurretik, beharrezkoa da aurreko zi- klo politikoan ENAMek baliatu zituen oinarri estrategikoei erreparatzea eta horien agorpenaren arrazoiak identi- fikatzeko, laburki bada ere. *KAS alternati- baren paradigma* deituko diogu borroka armatuaren faktorea integratzen zuen formula estrategiko hari, prozesuan zehar moldaketak izan bazituen ere.

Trantsizioaren perspektibaren au- rrean, Espainiako Estatua insurrekzio bidez militarri garaitzeko helburua

baztertu eta *luzaroko higadura-gerra* kontzeptua bereganatu zuen ETA militarrek. Euskal Herriarentzako gutxieneko askatasun demokratikoen bide-orria ezartzeko negoziazio politikoa behartzea zen konfrontazio-eredu berriaren helburua. Bide-orri demokratikoaren edukiak ukiezinak zirenez, haren plasmaziorako denborak eta erritmoak baino ez zituzten eztabaidatuko. Negoziazioen emaitzak, bestalde, «aldeko indar-korrelazioek» determinatuko zituztela ulertu zuten. Espainiako Estatuaren eta ENAMen arteko indar-harremana bigarrenaren zat mesedegarria izan zedin, fronte militarrean, politikoan zein sozialean indarrak metatu eta aplikatu behar zirela arrazoitu zuten; horregatik, fronte militarra lehenetsi zuten eta erakunde armatuari abangoardia funtzioa esleitu zioten. Funtsean, Estatuak ekintza armatuen kanpaina gogorrekin makurrarazi nahi zuen ENAMek, KAS alternatibaren bultzatutako puntuak negoziazio-mahaian onartzera derrigortzeko. Definizio horren inguruan eratu zen Ezker Abertzale modernoa^[2].

Higadura-gerra ondoko asuntzioan oinarritzen zen: Espainiako Estatuak noizbehinka ETArekin komandoak atxilotu, militanteak erail, errepresioa Euskal Herrian zabaltzeko eta Ezker Abertzalea politikoki modu basatian konfrontatu zezakeen, baina inoiz ezingo zuen ENAM erabat garaitu. Arkitektura estrategikoko horren arabera, ETAk autoerreproduktzio militarreko gaitasun proportzionalari eutsiko zion, Ezker Abertzaleak ez zuen mobilizazio-gaitasunean zein babes sozialean

Funtsean, Estatuak ekintza armatuen kanpaina gogorrekin makurrarazi nahi zuen ENAMek, KAS alternatibaren bultzatutako puntuak negoziazio-mahaian onartzera derrigortzeko. Definizio horren inguruan eratu zen Ezker Abertzale modernoa

gainbehera kritikorik jasango, eta, noski, Espainiako Estatuak ez zen haren alderdi politikoak, erakunde zibilak zein oinarri sozialak ukitzeko ausartuko. Ustez iraunkorra izango zen oreka horrek, epe luzean, Estatuari kostu pertsonal, ekonomiko zein politiko onartezina ekarriko ziola ulertu zuten. Beraz, denbora, arazoia eta masen babesa bere alde, kolpeak kateatzea beste zereginik ez zuen ENAMek. *Berdinketa infinituaren teoria* deitu zioten zenbaitek.

EZINEZKO NEGOZIAZIOA

ENAMek desiratutako negoziazioa geroz eta zailagoa bihurtu zen gatazkak aurrera egin ahala. Azken batean, antzeko patroia errepikatu zen egondako kontaktu bakoitzean: ETA eduki politikoen gainean eztabaidatzeko asmoz esertzen zen mahaian, eta Espainiako Estatuak presoei, deportatuei eta «biolentziaren amaierari» buruzko auzietan baino ez zuen jarri nahi bere sinadura. ENAMek negoziazio-saiakeraz zein kanpaina armatu bakoitzaren porrotaz balorazioak egiten zituenean, negoziazio politikoa erdiesteko baldintzak «heltzeke» zeudela interpretatzen zuen etengabe, hau da, gogorrago eta beste forma batzuetan kolpatzen jarraitu beharra zegoela. Orduan inork ez zuen kategorikoki baieztatzen tentsio armatuari luzaroan eusteak negoziazio-aukerak agortu zitzakeenik. 80ko eta 90eko hamarkadetako euskal gatazkaren errealitateak ziurgabetasunerako tartea uzten zuen nonahi, bi aurkariak gogor tiratzen baitzuten sokatik. «Gauzak ezin dira neurtu ondoren gertatutakoekin bakarrik, neurtu behar dira garaian zegoen errepresentazio zuzenarekin konparatuz», dio Emilio Lopez Adan *Beltzak*^[3].

Hala eta guztiz ere, jarduera armatuaren bideragarritasun estrategikoaren inguruko zalantzak ez dira atzoko kontua ETAn. Eugenio Etxebeste *Antton* militante historikoak, adibidez, borroka armatua «galga bihurtzen hasia zela» idatzi zion erakundearen zuzendaritzari 1992an. «Bataila militarra galtzeak ezin zezakeen eraman bataila politikoa galtzera», azaldu zion *Berria* egunkariari 2016an eskainitako elkarrizketa batean^[4]. Militante ohien testigantza zalantzagarriagoek kide historiko gehiagoren ahotan jarri izan dituzte antzeko hitzak; elkarrizketa pribatuen testuinguruan, betiere^[5].

Antzeko patroia errepikatu zen egondako kontaktu bakoitzean: ETA eduki politikoen gainean eztabaidatzeko asmoz esertzen zen mahaian, eta Espainiako Estatuak presoei, deportatuei eta «biolentziaren amaierari» buruzko auzietan baino ez zuen jarri nahi bere sinadura

SETIOA

Euskal gatazkaren XXI. mendeko agertokian lurreratu baino lehen, prozesua modu zuzenean baldintzatu zuten faktore koiuntural zein egiturazkoen ohar batzuk jasotzea komeni da. ENAMek 2007-2011 fasean izan zuen norabide politikoa bere erliebe material zein historikoan jartzean, lehenik eta behin, Espainiako kapitalismoaren modernizazioarekin eta horri lotutako trantsizio politikorekin topo egiten dugu. Erregimenaren erreformak ekoizpen-ziklo fordistaren agorpena eta langile mugimendu klasikoaren desegitea eragin zituen, baina baita ENAMen aliantzen agortze progresiboa eta oinarri sozial potentzialaren murrizketa ere. Izan ere, haustura demokratikorako «herritar batasun» interklasistan proiektatzen zen subjektu politikoaren segmentu garrantzitsuenei, hots, Euskal Herriko langile aristokraziari zein burgesia txikiari, euren interes partikularrak babesteko abagunea ireki zitzaizen Estatuaren ordezkaritza politikoetan, lanpostu publikoetan eta abar. Horrela, 1978ko Konstituzioak eta bere momentu historikoak hilarri bat jarri zuten nazio zapalduen aldarrikapenen eta gatazka sozialen gainean. Bidenabar, Hego Euskal Herriko instituzio autonomiko espainolek (Euskal Autonomia Erkidegoa eta Nafarroako Foru Erkidegoa) egonkortasun politiko lortu zuten. Euskal gatazkarekiko





Gizartearen despolitizazioa
esponentzialki hazten zihoan
heinean, ENAM *antagonismo oasi*
moduko bat bilakatu zen ongizate
estatuaren erdian



modu paraleloan, Estatuaren hiritargoa osatzen duen klase ertainak oparotasun politiko, ekonomiko zein soziala bizi izan zuen 2008ra arte. Hala, gizar-tearen despolitizazioa esponentzialki hazten zihoan heinean, ENAM *antagonismo oasi* moduko bat bilakatu zen ongizate estatuaren erdian.

Indar-korrelazioen aldaketa horrek Estatuari bidea ireki zion Euskal Herriko borroka-komunitate osoa setiatzeko eta itotzeko. Paradoxikoki, demokrazia burgesak higadura-gerraren estrategia ENAMen beraren kontra jartzea lortu zuen pixkanaka. Espainiako Barne Ministerioak gainontzeko potentzia kapitalisten kontrainsurjentzia eskuliburuei homologatutako doktrina moderno, konplexu eta aldeaniztuna sortu zuen «ETA eta haren inguruarekin» amaitzeko.

Parametro horien baitan ulertu behar dira, besteak beste, tortura, estatuterrorismoa, ETaren kontrako protesta mugimendu zibilak, Frantziako eta Espainiako estatuen arteko kolaborazio polizialaren trinkotzea, «demokratak vs biolentoak» dikotomia ezarri zuen Ajuriaeneako hitzarmena, euskal preso politikoen aurkako dispertsioa eta salbuespenezko espetxe-politika, damututako militanteentzako «aterabide indibidual» famatuak, Ezker Abertzale zibil zein politikorekin aurkako ilegalizazio ugariak, poliziak ETaren egiturak atzemateko eraginkortasun kuantitatibo zein kualitatibo gorenaren garatu izana, eta abar.

Kolpeak jaso ahala, ENAMek moldaketa taktiko ugari formulatu zituen, pulstua negoziazio politikoko mahairantz estutzeko asmoz. Estatua eta erakunde armatuaren ordezkaritzak aurrez aurre eseri ziren hainbat alditan: 1989an Aljerren (Aljeria), 1999an Zurichen (Suitza), 2005ean Oslon (Norvegia) eta 2006an Genevan (Suitza). Izan zen alderdi politikoen arteko hartu-emanik ere, 1998an Lizarra-Garaziko akordioetan eta 2006an Loiolan (Gipuzkoa). Horietako bat berak ere ez zuen hurrik eman, ordea. Aipatutako ibilbidearen higadurak eta azken negoziazio saioaren porrot tragikoak kale itsuan kokatu zuten ENAM, egoera kritikoan.

PITZADURAK

Mugimendu osoa ataka larrian zegoen 2007an. Ezker Abertzalea politikoki legez kanpo eta sozialki zokoraturuta zegoen. ETak krisi militarra bizi zuen maila operatiboan, eta, hori guxti balitz, erakundearen babes sozial orokorra inoizko baxuena zen. Historian estreinako aldiz, talde armatua Ezker Abertzalearen baitan ere izen ona galtzen hasia zen. 2006ko abenduaren 30ean ETak Madrilgo Barajas aireportuko T4 terminala lehertu zuen su-etenaren erdian. Horren ondorioz, Josu Urrutikoetxea ETako militante ohiaren hitzetan, «zerbait apurtu zen euskal herritarren barruan, eta jendeak ez zuen ulertu»^[6]. Batasunak publikoki gaitzetsi ez bazuen ere, Arnaldo Otegia modu pribatuan argi eta garbi adierazi omen zien zenbait kazetariri: «ETak bere historiaren eta sinesgarritasunaren aurka atentatu du ekintza su-etena indarrean zela egiterakoan»^[7]. Tentsioa eta noraeza nabarmenak ziren ENAMen baitan.

Nahaspilaren erdian, aurreko negoziaketa-eredua agortuta zegoela aitortzen hasi zen Batasunako zuzendaritza barne-mailan, zalantzak aurretik zetozen arren. «Argipen estrategiko baten beharra zegoen. Aurreko negoziaketa-ereduek ez zuten gehiagotan errepikatze balio. Indar militarren garapenak ireki zezakeen balizko aldebiko negoziaketa berri baten perspektiba oso urruna zen, eta bien bitartean, Ezker Abertzalea urteetan zehar lortutako metaketa politiko historikoa xahutzen ari zen, politikoki ezerezean geldituzko

Ezker Abertzalea politikoki legez kanpo eta sozialki zokoratuta zegoen. ETAk krisi militarra bizi zuen maila operatiboan, eta, hori gutxi balitz, erakundearen babes sozial orokorra inoizko baxuena zen. Historian estreinako aldiz, talde armatua Ezker Abertzalearen baitan ere izen ona galtzen hasia zen

arriskuarekin», diote Urko Aiartzak eta Rufi Etxeberriak^[8]. Halako aldaketa sakonak modu eraginkorrean gauzatzeak kontsentsu sendoak eskatzen ditu edozein mugimenduren baitan, eta zer esanik ez ENAMen kasuan.

Genevako azken elkarriketak 2007ko maiatzaren amaieran hautsi ziren, inolako akordiorik erdietsi gabe; ez ETA-Gobernua mahaian, ezta Batasuna-PSEren artean ere. Une horretatik aurrera, Batasunaren eta ETaren ikuspegiak elkarrengandik urruntzen hasi ziren. Etxera bidean zela, alderdiko delegazioak bazekien erakundea su-etena hausteko prestatzen ari zela, eta horrek ez ziola agertoki onik uzten Ezker Abertzalean formalki ireki nahi zuen prozesuan. 2007ko ekainaren 5ean «Euskal Herriaren defentsarako fronte guztien irekiera» adierazi zuen ETAk komunikabideetan. Handik hiru egunera, Espainiako Auzitegi Gorenak Arnaldo Otegiaren kontrako espetxe-zigorra igorri zuen, eta Batasunako buruzagia Martuteneko (Gipuzkoa) kartzelan espetxeratu zuten.

Erakundeak, bien bitartean, ekin-tzak berrartu zituen ekainetik aurrera. Eraginkortasun urria izan zuen eta sarekadak geroz eta sarriago jasan zituen. Aitzitik, ETAk asanblada orokorra abiatu zuen 2007ko udazkenean, hurrengo ziklo armatuaren inguruan eztabaidatzeko. Erakundearen arduradun gorenak liskar bizian ziren une horretan bertan, arrazoi estrategikoengatik baino, afera operatiboengatik. Halatan, barne-krisi sakona piztu zen ETAn, praktikan bereizita funtzionatzen zuten bi zuzendaritza izateraino. Une batean, buruzagitzaren atal bat bestea erakundetik kanporatzera iritsi omen zen. Tirabira horrek «erakundeak Ezker Abertzalean zuen onarpenean eta konfiantzan eragin nabarmena» izan zuela diote gertutik bizi izan zutenek^[9].

ETaren barne-prozesuak ekaitzaren erdian aurrera jarraitzen zuen, ardura-dun batzuen atxiloketekin eta horren ondoriozko kargu aldaketekin batera. Eztabaidaren lehen fasearen amaieran, 2008ko martxoan, «konfrontazio armatuko fase luzea» ondorioztatu zu-

7-11

Ordutik aurrera, ENAMen estrategia orokorraren inguruko eztabaida Batasunaren egituretatik zuzendu eta garatu zen, ez Ekinetik. Horrela, alderdi politikoak, mugimenduaren gainontzeko egiturekiko modu autonomoan funtzionatzen hasi zen unean, botere handia kontzentratu zuen

ten militanteen % 80,5en babesarekin. «Ezker Abertzaleak gatazka gogortzera eta konfrontazio politikoa maila gorenera igotzera bideratu behar du bere estrategia», baieztatu zuen *Txosten Osatuak*. Horretarako, «Ezker Abertzaleak bere etxea txukundu beharko duela» ohartarazi zuen erakundeak, borroka armatuaren kontrako tesiak sostengatzen zituztenei erreferentzia eginez. ETArek asanblada, alta, ez zen espero bezala burutu. Batasunako zuzendaritza paraleloki sozializatzen hasi zen ikuspegia oso bestelakoa zen, eta zuzenean baldintzatuko zuen Ezker Abertzale osoaren noranzkoa^[10].

BURUZAGITZA EREDUA AUZITAN

ENAMek inoizko negoziazio zailenari ekin zion 2008ko udan: bere baitan zeuden posizio kontraesankorren arteko gatazka konpontzeari, hain zuzen ere. Ilegalizazio egoera zela eta, egiturek zailtasun ikaragarriak izan zituzten 2007an itxi zen Genevako prozesuaren porrotaz kolektiboki hausnartzeko. 2008ko abuztuaren Otegi espetxetik askatu zutenean, Ekinek^[11] eta Batasunak ETArek azken asanbladako txostenarekin bat zetozen urteko plangintzak onartuta zituzten. Testuinguru horretan, tesi berriak zabaldu nahi

zituzten Batasunako kideak berriro elkartu ziren, «nukleo» baten izenean, «Ezker Abertzaleko ahalik eta pertsona gehienekin» iritziak trukatzeko asmoz^[12]. Haien esanetan, elkarriketatutako kideen gehiengoa eurekin bat zetorren.

Handik gutxira, *Gara* egunkariak Otegi egindako elkarriketa bat argitaratu zuen. Honela zioen titularrak: «Ezker Abertzaleak agertoki demokratikoa lortzeko estrategia eraginkorra eraiki behar du»^[13]. Adierazpenok ez zituen Batasunako bozeramaile gisa egin, ez baitzetozen orduko Ezker Abertzalearen jarrera ofizialarekin bat. Desberdintasunak azaleratzen ari zirenez eta zenbait ekintza armatuk Ezker Abertzalearen baitan hautsak harrotu zituztenez, ENAMen antolakunde guztietako zuzendaritzek estrategia-aren inguruko eztabaida mahaigaineratzea adostu zuten 2008ko abenduan. Sei hilabeteko epea aurreikusten zuten hausnarketa-prozesua oinarri sozial zabalari luzatu aurretik. Barne eztabaidaren lehen fase mugatuan «ziklo aldaketaren aldeko jarrera» gailendu zela diote hainbat militanteek. ETak ez ditu horrenbeste zehaztapen ematen^[14].

Denborak aurrera egin ahala, adierazpen publikoen trukaketak egon zi-

ren Ezker Abertzale politikoaren eta ETArek artean. 2009ko martxoaren 16an, adibidez, ENAMen antolakunde desberdinetako zenbait kidek agerraldi publiko bat egin zuten, «estrategia eraginkorra eta independentisten arteko lankidetzaz» aldarrikatuz. ETak, bere aldetik, «estrategia politiko-militar eraginkorra» zehazteko lanean ari zela erantzun zuen *Gara*-n^[15]. Borondate kontrajarriak azaleratu ziren, eta hausnurtu-arriskua, berriz, airean zegoen.

2009ko udan, etorkizuneko estrategiaz eta ildo politikoaz eztabaidatzen hasi zirela, tesien arteko tala une kritiko batera heldu zen. Gehiengoaren ustez, borroka armatuarekin jarraituz gero ezinezkoa izango zen independentisten arteko akordioak lortzea eta Espainiako Estatuaren negoziatzera behartzea. Beste zenbaitek bateragarriak zirela argudiatzen zuten. Hori gutxi balitz, hainbat kide eztabaidarako markoa zalantzan jartzen hasi ziren: nori zegokion borroka armatuaren inguruan erabakiak hartzea? ETari soilik? Ala ENAM osoari? Mugimenduaren zuzendaritza-eredu klasikoa krisian zegoen. Hori zen argi zegoen gauza bakarra^[16].

Posizioak blokeo egoerara iritsi zirenez, Ezker Abertzaleko antolakunde zibiletako zenbait militanteek eztabai-

da bertan behera uztea adostu zuten ETaren ordezkaritza batekin. Ondoren, gainontzeko antolakundeetako zuzendaritzei helarazi zieten erabakia. Batasunako buruzagitza ez zetorren hartutako neurriarekin bat, zehaztapen estrategikoa alboratzea «ordezkaritza zein baldintza eskasekin» ebatzi zela uste baitzuen. Hori ikusita, txosten propio bat osatu eta prozesuarekin bere kabuz jarraitzea erabaki zuen. Orduetik aurrera, ENAMen estrategia orokorraren inguruko eztabaida Batasunaren egituretatik zuzendu eta garatu zen, ez Ekinetik. Horrela, alderdi politikoak, mugimenduaren gainontzeko egiturekiko modu autonomoan funtzionatzen hasi zen unean, botere handia kontzentratu zuen^[17].

Eztabaida estrategikoa ponentzietan gorpuztu zen azkenean. Batasunak *Argitzen* izeneko dokumentuan zehaztu zituen bere tesiak. Ponentzia horrek ez zuen estrategia politiko-militarra baztertzeko asmoa esplizituki adierazten, baina bazuen hori oin ematen zion irekidura kontzeptuala. Kontinuistek *Mugarri* ponentzia osatu zuten, borroka armatuaren defentsa irmoa eginez. Bi testuen arteko harreman konkretua ez da erabat gardena, izan ere, ponentzien arteko lehia politikoa egon zen zenbaiten ustez, eta beste batzuek osagarriak zirela diote.

K.O. TEKNIKOA

Euskal gatazka negoziazio bidez ixtea baino alternatiba handizaleagoak prestatu zituen Espainiako Estatuak ordurako. Gakoa Batasuna ETaren-gandik aldentzera behartzea eta biak kolpatzea zen. Alfredo Perez Rubalcaba Espainiako Barne Ministro zenak argi utzi zien bere doktrina: «Botoak ala bonbak, zuek aukeratu». 2009ko urriaren 13an Ezker Abertzaleko hainbat kideren aurkako polizia-operazioa gauzatu zuten, *Bateragune* auzia ize nez ezagutuko zena. Horren ondorioz, Arnaldo Otegi, Sonia Jacinto, Miren Zabaleta, Rafa Diez eta Arkaitz Rodriguez espetxeratu zituzten. Hala ere, ziklo berriaren aldeko tesiak gorpuzten

Denbora Estatuaren alde zegoen, eta galdera nagusia jada ez zen *noiz* amaituko zen borroka armatua, *nola* baizik

zituzten kideok *Argitzen* ponentziak asanblada lokaletara bidali zituzten giltzapetuak izan aurretik. *Bateragune* kasuaren *Estatu arrazoiaz*, bestalde, bi interpretazio nagusitu dira. Batak dio Espainiako Barne Ministerioak baze kiela Ezker Abertzalearen baitan eztabaida garrantzitsu bat garatzen ari zela, eta atxilotutako kideak, zehazki, borroka armatuarekin amaitzeko lan eraginkorra egiten ari zirela. Ondorioz, operazioaren helburua prozesua sabotatzea izan zen, estrategia politiko-militarra bere kabuz alboratzeak Ezker Abertzaleari politikoki mesede egin ez ziezaion. Beste bertsioaren arabera, Estatua ez zegoen ziur Ezker Abertzalearen barne-prozesuak ETaren kapitulazioa ekarriko zuen ala ez, eztabaidaren existentziaren eta atxilotuen asmo politikoen jakitun izan arren. Horregatik, presioa sartzen jarraitu nahi zuen^[18].

Nolanahi ere, Estatua Ezker Abertzalearen baketze-eredua zapuzten saiatu zen, baina ez borroka armatua desagerraraztea interesatzen ez zitzaiolako, bere erara desagerrarazi nahi zuelako baizik. Espainiako burgesiari eta bere beso politiko-militarrari ez zitzaion ETaren existentzia komeni, abstraktuki. Gutxieneko gaitasun operatiboak zituen ETA bat bizirik mantentzea besterik ez zuen nahi azken momentuetan, Ezker Abertzalea politikoki hondoratzeko eta erakundea polizialki zanpatzeko adina. Denbora Estatuaren alde zegoen, eta galdera nagusia jada ez zen *noiz* amaituko zen borroka armatua, *nola* baizik.





Azken orduko kexez eta erresistentziaz bestalde, Argitzenek onarpen zabala izan zuen. Ukaezina da Ezker Abertzalearen oinarri sozialaren gehiengoak borroka armatua atzean uzteko borondatea zuela



AZKEN HATSA

Buruzagiak espetxean egon arren, tesi berriek posizioak irabazten jarraitzen zuten Ezker Abertzalearen baitan. Gara-k Batasunaren ponentzia eta bost espetxeratuek sinatutako gutun irekia argitaratu zituen atxiloketen ostean. Eskutitza termino esplizituagoetan mintzo zen, Ezker Abertzalearen politika berria «herri-babesean bakarrik» oinarritu behar zela adierazten baitzuten^[19]. Sei egun beranduago, Altsasuko Adierazpena egin zuten militante ugari, Mitchell Printzipioak bere egiten zituztela azalduz. Sinn Fein-ek Ipar Irlandan IRArekin amaitzeko baliatutako arauok, besteak beste, «bitarteko demokratiko eta baketsuen erabilera eskusiboa» zekarten, baita «biolentzia erabiltzearen aurkako jarrera aktiboa» ere. Adierazpenak tentsioa piztu zuen Ezker Abertzalearen baitan, agerpen publikoan parte hartu zuten zenbait kidek ez baitzuten eduki zehatzaren berri izan azken unera arte. Zalantzak edota desadostasunak zituzten militanteek ere ez zuten begi onez ikusi prentsaurreko horretako hitzak Ezker Abertzale osoaren ahotan jartzea, eta, are gutxiago, eztabaida nagusia burutzeke zegoela jakinda. ETAk ere ñabardura esanguratsuak gehitu zizkion ohar bidez^[20].

Bi ponentziak modu paraleloan eta esparru desberdinetan zirkulatzen ari ziren eztabaidaren azken txanpan. Gutxi batzuk Batasunaren dokumentua asanblada lokaletara heltzea oztapatzen saiatu ziren bitartean, alderdiak beto orokorra ezarri zion *Mugarri*ri, eta *Argitzen* baino ez zuen herrietara zabaldu. *Mugarri*ren egileek ponentzia erretiratu behar izan zuten azkenean, Batasunak hala aginduta. EPPK (Euskal Preso Politikoen Kolektiboa) salbuespena izan zen prozesu guztian,

ponentzia kontinuista jaso zuen antolakunde bakarra izan baitzen. Batasunak eta presoek ordezkaritzak bi bilera egin zituzten arazo horren harira. EPPK-k akusazio gogorrak jaurti zizkion alderdiari: zuzendaritza bateratuak hautatutako ponentzia Mugarri zela ohartarazi zion, eta *Argitzen* Batasunaren ponentzia zela, «ez Ezker Abertzale osoarena». Gara-ko gutuna eta Altsasuko Adierazpena ere ez zitzaizkien batere gustatu, «zuzendaritza bateratuaren oniritzi gabe» hartutako erabakiak izan zirela uste baitzuten presoek bozeramaileek. Koordinazio- eta zuzendaritza-ereduak «erabilgarritasuna galdu zuela» esanez desenkusatu zen Batasuna. EPPK-k erantzun zien koordinazio-organoa uztearen arrazoiak ez ote zen izango «zuzendaritza bateratuak estrategia berria ez onartzearen beldur zirela»^[21].

Azken orduko kexez eta erresistentziaz bestalde, *Argitzenek* onarpen zabala izan zuen. Ukaezina da Ezker Abertzalearen oinarri sozialaren gehiengoak borroka armatua atzean uzteko borondatea zuela. Ondorioz, *Zutik Euskal Herria* ebazpena kalera tu zuten 2010eko otsailean, borroka armatuaren behin betiko errefusatzeko formalki adieraziz^[22]. Posizio kontinistek amore eman zuten apurka-apurka, baita ETArekin baitan ere. Erakundeak bere azkenetan zela, egitura logistikoa Portugalera lekualdatzen saiatu zen, kanpaina armatua luzatzeko asmoz. Indar polizialek maniobra hura geldiarazi zuten ordea, eta bere arduradun politiko zein materialak atxilotu egin zituzten. Hortik aurrera, erakundearen zuzendaritzak ez zituen oztopo gehiago jarri, eta armagabetze-prozesua Ezker Abertzalearekin batera kudeatzera mugatu zen.

A vertical crack, resembling a lightning bolt or a tear in paper, runs down the left side of the page. It is dark and jagged, contrasting with the light, textured background.

**ENAM Mendebaldeko
erdigune inperialistako nazio-
askapen mugimenduen artean
indartsuenetarikoa izaki, eta haren
porrot historiko ukaezinaren lekuko
izan ondoren, ezbaian geratzen da
bere oinarri estrategikoak nazio
zein klase zapalkuntza gainditzeko
duen ahalmen objektiboa**



Sortu alderdiaren estatutuen aurkezpena Barne Ministerioko alderdi-erregistroan, Madrilan, 2011ko otsailaren 9an

ONDORIOAK

ENAMen azken fasean borroka armatuaren inguruko tesi kontrajarriek sortutako barne-gatazka politiko bat izan zela baieztatu dezakegu, Batasunako aginte-nukleoaren eta ETako zein Ekineko militante batzuen artean gutxienez. Ziklo berriaren aldeko ideiak lidergotza-krisitik indartuta irten ziren, zatiketarik ekiditearen eta Ezker Abertzalearen biziraupen partidista bermatzearen helburuak beteta.

Erabakiak ekarri dituen ondorio guztien balorazio etiko-politikoetan sartu gabe, gaur-gaurkoz ondokoa esan daiteke Ezker Abertzalearen norabide aldaketari buruz: batetik, Otegik eta enparauek borroka armatua «likidatu» bazuten, Estatuaren inertzia errepresiboak nahiz isolamendu sozialak likidatu aurretik egin zutelako. Bestetik, prozedura aldetik, egia da ziklo aldaketaren bultzatzaileek barne-demokraziari dagozkien irregularitasunak egin zituztela. Alabaina, baiezkua oposizio handi-

rik gabe nagusitu zen mugimenduaren oinarri zabalean, Estatuaren atxilotura selektibo batzuk eta konforme ez zeuden sektore minoritarioen gaineko barne-presio politikoa tarteko.

Azken negoziaketak hautsi ostean, Espainiako Estatuak Ezker Abertzalea politikoki zein militarki desegiteko aukera erreala ikusi zuen. Borroka armatuaren autosuntsiketarik, ordea, Euskal Herriko joko-zelai politikoaren birkonfigurazioa eragin du. Espainiako demokrazia burgesa egonkortzeko beharrezko pausoa izan da etxekotutako Ezker Abertzale berriari partaidetza elektoral baimentzea, behin ETA jokoz kanpo utzi ondoren.

ENAM Mendebaldeko erdigune imperialistako nazio-askapen mugimenduaren artean indartsuenetakoa izaki, eta haren porrot historiko ukaezinaren lekuko izan ondoren, ezbaian geratzen da bere oinarri estrategikoak nazio zein klase zapalkuntza gainditzeko duen ahalmen objektiboa. Etapismoan eta

interklasismoan oinarritutako estrategien iraungipena da mahaigaineratzen zaiguna, baita erakunde armatu espezializatuek iraultza sozial sakonak gauzatzeko aurkitzen dituzten mugak ere. Klaserik gabeko Euskal Herriaren alde modu desinteresatuan bizitza eskaini duten militanteekiko eta proiektu emantzipatzailearekiko begirunez, kritika eta diziiplina dira XXI. mendeko militante komunisten betebeharrak etikoak. Aurrekoen akatsen eta ekarpenen identifikazioak balio dezala batzen gaituen ortzi-mugara hurbiltzeko. /

OHARRAK ETA ERREFERENTZIAK

[1] KAS alternatibaren puntuak, 1978ko eguneratzearen ostean: 1. Amnistia osoa. 2. Alderdi politiko guztiak legeztatzea, independentistak barne, estatutuak murrizteko beharrik gabe. 3. Espainiako Estatuaren indar armatuak Hego Euskal Herriitik irtetea. 4. Masa herrikoien eta, bereziki, langile-klasearen bizi- zein lan-baldintzak hobetzeko neurriak hartzea. Haien ordezkaritza-erakundeek adierazitako asmo sozial eta ekonomikoak berehala gogobetetzea. 5. Euskal Herriaren subiranotasun nazionala eta autodeterminaziorako eskubidea aitortzen dituen autonomia estatutu berria.

[2] Ezker Abertzale modernoaren sorrera-prozesuaren inguruan sakontzeko: Askunze, D. (2021) *Klase-borroka ezker abertzalearen baitan 70eko hamarkadan*. Arteka.

[3] Letona, X. (2021). *Emilio Lopez Adan: «Militanteen duintasun etiko eta iraultzailea defenditu nahi dut»*. Argia.

[4] Esnaola, E. (2016). *Antton Etxebeste: «Gatazka batean irtenbide demokratikoa lortzeko baldintzak erein behar dira»*. Berria.

[5] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 41-44 or.

[6] Esnaola, E. (2020). «*Delitu terrorista al da bakea negoziatzea? Ez du zentzurik*». Berria.

[7] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 13-14. or.

[8] Aiertza, U. eta Etxeberria, R. (2021). *Aiete, hamar urte ondoren*. Erria.

[9] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 15-20. or.

[10] *Ibidem*. 22-25. or.

[11] ENAMen une hartako zuzendaritza eta koordinaziorako organo politiko bateratua. 1999an sortu eta 2011an desegin zen.

[12] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 106-107 or.

[13] Gara, 2008-11-30.

[14] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 109-110. or.

[15] Gara, 2009-05-25.

[16] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 121-122. or.

[17] *Ibidem*. 123-124. or.

[18] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 128-129. or.

[19] Otegi, Zabaleta, Jacinto, Rodríguez eta Díez (2009-11-8). *Una foto y un futuro*. Gara.

[20] Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Ttarttalo. 131-132. or.

[21] *Ibidem*. 137-138. or.

[22] Ezker Abertzalea (2010). *Zutik Euskal Herria*.

BIBLIOGRAFIA

Aldalur, B. (2020). *Beharizana eta kontingentzia. Ezker Abertzalearen adibidea*. Gedar.

Egaña, I. eta Giacomuzzi, G. (1992). *Los días de Argel: Crónica de las conversaciones entre E.T.A. y el Gobierno Español*. Tafalla: Txalaparta.

Esnaola, E. (2020-02-09). *Isiltzen hasteko, isilpean aurrenik*. Berria.

Esnaola, E. (2021-10-10). *Aietera iristeko bide luzea*. Berria.

Esnaola, E. (2021-10-20). *Agiri historikoaren inguruabarrak*. Berria.

Gara (2021-10-20). *2011-2021, 10 Años del cese de la actividad armada, Aiete eta ETA-ren adierazpena*. Monografikoa.

Giacopuzzi, G. (1992). *ETA, Historia política de una lucha armada, 2ª Parte*. Tafalla: Txalaparta.

Murua, I. (2010). *Loiolako hegiak*. Donostia: Elkar.

Murua, I. (2015). *Un final para ETA*. Donostia: Tarttalo.

Lopez, E. (2012). *ETAren estrategia armatuaren historiaz*. Baiona: Maiatz.

Lopez, E. (2021). *Borroka armatua euskadin (1967-2011) Hirugarren liburukia (1991-2011)*. Baiona: Maiatz.

Kolitza (2017). *De la nación cuestionada a la cuestión nacional: contribución al debate ideológico de la izquierda abertzale*. Borroka Garaia da.

FILMOGRAFIA

Justin Webster (2016). *El final de ETA*.

EZKER ABERTZALEAREN PORROT HISTORIKOAREN ONDORIOAK

Azken asteotan Ezker Abertzalea zenaren karikatura bat baino ez den alderdi politikoaren barruan talkak areagotu egin dira, antza. Publikoan eman den sasioztabaidak, baina, ez du argudiaketa politikorik eskaini, nahiz eta interes publikoa duen bakarra politika izan. Aitzitik, badirudi trapezikiak, inori interesatzen ez zaizkionak, bihurtu direla eztabaidaren erdigune. Horregatik, bere ebazpena balio txikikoa da, baita paradoxikoa ere. Elkarri mokoka egin ostean, alde batean eta bestean zera nabarmendu da: anai-arreba eta burkideen artean elkar ulertzeko beharra, helburu handi batek batzen omen dituelako. Helburu handi hori ez da, ordea, errealitatea eraldatzea, “etxe” bat bizirik mantentzea baizik. Haiek esana.

Familiarekin eta tradizioarekin zerikusia duten esamolde horiek guztiak ez dira baliabide semantiko hutsa, ezta apaingarri bat ere. Mugimendu baten krisi politikoa kategoria ez-politikoetan adierazteak asko esaten du mugimendu horri buruz. Eta asko esaten du krisi horri buruz ere. Hain da handia krisia, ezen eta kategoria politikoetan adierazi beharrean, kategoria moral eta indibidualistetan adierazten den. Hau da, krisi politikoa hain da sakona, ezen ez baita krisi politiko gisa agertzen. Beste ezeren gainetik, komunitate baten, talde baten, biziraupena lehenesten da, arazo politikoek dagoeneko gainditu den iraungitze-data agerian uzten badute ere.

Porrot historikoaz ari garenean, bada, bere lehenengo ondorioa hau

Ezker Abertzalearen porrotak garai historiko baten amaierarekin du lotura. Bere biziraupen saiakerak, baina, Ezker Abertzaleak hasieratik porrot egin duela pentsatzera garamatza. Izan ere, mugimendu baten iraungipena edota balio taktiko determinatua gauza arrunta bada ere, eta hein handi batean mugimendu horren izaera koiunturala bere indargunea den arren —*zehatza izateagatik eta ez abstraktua, edo indeterminatua*—, horrekiko onarpen eza eta egoerara moldatzeko gaitasun eskasak erakusten du koiunturaltzat har genezakeena, akaso taktikoki egokia, benetan desegoki bihurtzen dela aktoreen itsutasuna medio

da: politikaren desagerpena, endogamia sektarioa eta balio moralen arabera lotura saiakera. Hori da artikulu honen abiapuntua, jada agerikoa den porrota eta bere azkeneko adierazpena, horren agerikoak ez diren arrazoieta barrena murgiltzeko.

Abiapuntu horren arrazoiak bi alde ditu: alde batetik, porrota onartzea, oker egonda ere, geratzen zaigun posizio etiko bakarra da. Mugimendu batek bere helburuak erdietsi ez baditu, eta hala ere garaitua izan ez bada, orduan porrot egin duela onartu behar dugu. Halakorik egin ezean, ezingo dugu korapilo politikoa askatu.

Beste aldetik, logikoa da: kanpo-indar batek garaitu ez bazaitu, ezinbestean barne-arrazoiak medio egin duzu porrot. Ez da, ordea, barne-arrazoi bat traizioa, nahiz eta traizio aukerak dena zapuzteko beta izatea izan baden barne-mugen arrazoiketarako bide. Pertsona bakar batek, edo multzo txiki batek, estrategia osoa porrotera eramateko aukera badu, horrek gehiago esaten du estrategiak, pertsona horietaz baino. Auzi historikoak ezin dira pertsona indibidualen jarreraren arabera

ebatzi. Kontrara, jarrera indibidualak soilik uler daitezke auzi historiko zehatzetan kokatzen badira. Norbanakoen ekintzen arabera epaitzen baldin badugu historia, orduan politikaren historia bera ari gara mapatik ezabatzen, eta hori, gorago aipatu bezala, porrot historikoaren adierazpen argia da.

Beraz, hemen ez naiz sigla baten porrotaz arituko. Jada iradoki dudana bezala, mugimendu baten porrotaz arituko naiz. Eta mugimendua aipatzen dudanean ez naiz soilik bere ordezkari ofizialez ari. Hori baino zabalagoa da mugimendua. Disidentzia ere mugimenduaren parte da, haren tesi historikoekin bat egiten duelako. Porrot egin duen mugimendu orok behar du bere disidentzia, bizirik mantendu ahal izateko.

Ezker Abertzalearen porrotak garai historiko baten amaierarekin du lotura. Bere biziraupen saiakerak, baina, Ezker Abertzaleak hasieratik porrot egin duela pentsatzera garamatza. Izan ere, mugimendu baten iraungipena edota balio taktiko determinatua gauza arrunta bada ere, eta hein handi batean mugimendu horren izaera koiunturala bere indar-

Indeterminazio ideologiko sakoneko mugimendua izan da Ezker Abertzalea; gatazkak eta borrokak ordeztzen zuten ideologiaren zehaztapen beharra. Horrela, ideologia espezifiko bat zabaldu da: ideologiaren zehaztasun eza edota zehaztapen horren alboratzea borrokaren aitzakipean

gunea den arren —*zehatza izateagatik eta ez abstraktua, edo indeterminatua*—, horrekiko onarpen eza eta egoerara moldatzeko gaitasun eskasak erakusten du koiunturaltzat har genezakeena, akaso taktikoki egokia, benetan desegoki bihurtzen dela aktoreen itsutasuna medio —*eta gainera balioa kentzen dio mugimendu bati bere izaera historikoa ez onartzeak; hau da, gertakari HISTORIKOAK hala dira, hain zuzen ere, historikoak eta determinatuak direlako*. Aipatutakoa gabezia politiko nabarmena da. Izan ere, taktika egoki batek indarra eman badiezazuke ere, kontraesan estrategikoak taktika ahul bilakatzen du, jarraikortasunik gabea; indargunea zena ahulgune bilakatzen du.

Esango nuke Ezker Abertzalearen amaiera irudikatzeko balio digun argudio horrek Ezker Abertzalearen bizitza osoa kategorizatzeko balio digula. Hots, estrategiaren eta taktikaren arteko kontraesanak zeharkatzen du Ezker Abertzalearen historia osoa —*eta beraz, itsutasun estrategiko kronikoa*—, eta, gainera, gaitz hori da gaur egun Ezker Abertzalearen indargune izan den hori gutxiestera nahiz porrotera eraman duena neurritz kanpo baloratzera eramaten duena ere. Bestela esanda, anakronismo politiko nabaria da Ezker Abertzalearen historian zehar, bere tesi politikoaren eta errealitate sozialaren artean, edo zuzendaritza politikoaren eta mugimendu errealearen artean.

Mugimendu baten porrota bere izaeran bilatu behar da; porrotaren baldintzak hasiera-hasieratik aurkitzen ziren Ezker Abertzalearen baitan. Azter ditzagun, beraz, baldintza horiek.

Bada, Ezker Abertzalearen agorpenaz ari naizenean, gatazka aro baten amaieraz eta horri adierazpen politikoa ematen zion estrategiaren desagerpenaz ari naiz. Hau da, estrategia batek gatazka artikulatzeko edota hari izaera politikoa emateko zuen gaitasuna agortu dela deritzot, aspaldi gainera

EZKER ABERTZALEA

Ezer baino lehen, komenigarria da argitzea zeri buruz ari naizen Ezker Abertzaleaz ari naizenean, ulertu dadin zertan datzan, ikuspegi horren arabera, bere agorpena. Supleki, Ezker Abertzale gisa ulertzen dut testuinguru zehatz bati lotutako koiunturazko mugimendu bat, zeinak gatazka sozialaren artikulazioan posizio hegemonikoa —*baina ez esklusiboa*— izan zuen Euskal Herrian. Era berean, Ezker Abertzalea gatazka sozial horren adierazpen politikoa zehatzatza izan zen, egon bazen gatazkari programa politikoa positibo baten forma eman ziona: nazio askapena edota independentzia, hau da, Euskal Estatuaren eraikuntza.

Indeterminazio ideologiko sakoneko mugimendua izan da Ezker Abertzalea; gatazkek eta borrokak ordeztzen zuten ideologiaren zehatzapen beharra. Horrela, ideologia espezifiko bat zabaldu da: ideologiaren zehaztasun eza edota zehaztapen horren alboratzea borrokaren aitzakipean. Hala, borrokak batutako mugimendua izan da Ezker Abertzalea, eta borrokak berak definitu duena. Horrek, indeterminazio horrek, sakoneko arazoak ekarri ditu gerora. Esate baterako, borroka molde bat baztertu denean, Ezker Abertzalearen paradigma historikoak ez dio bere itxura iraultzaileari eutsi. Lehen, borrokaren lehentasuna eta ideologiaren zehaztasun eza medio, Esta-

tuaren (eta kapitalismoaren) aurkako gatazka gisa ulertzen zena —*eta zentzu horretan sentsibilitate desberdinak batzen zituena*—, orain Estatu kapitalistaren forma jakin batekiko (diktadura) gatazka gisa agertzen da —*eta ez Estatuaren aurkakoa*—, koiunturak erabat determinatuta, eta harekin batera agortuta. Era berean, gatazka sozialak behera egin duenean, hainbat baldintza tarteko, Ezker Abertzaleak ezin izan dio bere izaerari eta batzen zuen horri eutsi.

Bada, Ezker Abertzalearen agorpenaz ari naizenean, gatazka aro baten amaieraz eta horri adierazpen politikoa ematen zion estrategiaren desagerpenaz ari naiz. Hau da, estrategia batek gatazka artikulatzeko edota hari izaera politikoa emateko zuen gaitasuna agortu dela deritzot, aspaldi gainera. Horrekin batera, paradigma oso bat etorri da behera —*nazio askapena*—, hari lotutako ondorioekin batera: proletalgoa baztertzen ez duen interklasismoaren aukera. Horrek erakusten du paradigma hori ez zela egiazki borroka grina artikulatzen zuena, baizik eta, kontrara, borroka grina horren menpeko izan dela paradigmaren artikulazio sozialerako gaitasuna, zeinak hein handi batean ez zuen borroka grinaren jatorria sekula ulertu. Beraz, zehatzago, Ezker Abertzalea gatazka aro batean hedatutako paradigma, molde eta estrategia politikoa izan da, aro horrekin batera agortu dena.

Bi egitatek ezaugarritzen dute Ezker Abertzalearen aroa: diktadura frankista eta industrian oinarritutako ehun produktiboa. Lehenak Ezker Abertzalearen emergentzia politikoa justifikatzen du. Bigarrenak, aldiz, bere sustraitze soziala

AROA

Bi egitatek ezaugarritzen dute Ezker Abertzalearen aroa: diktadura frankista eta industrian oinarritutako ehun produktiboa. Lehenak Ezker Abertzalearen emergentzia politikoa justifikatzen du. Bigarrenak, aldiz, bere sustraitze soziala.

Ezker Abertzalea —*aurkezpena erraztearren, eta mugimenduaren genealogia zehatzaren abiapuntua identifikaztearren, ETAren sorreran kokatzen dut Ezker Abertzalearen sorrera, nahiz eta beranduago formulatuko zen paradigma izan*— frankismo garaian sortu zen. Frankismo garaian, eta frankismoaren aurka. Frankismoaren garaia ez da soilik diktadorea hil arteko denbora-tartea. Garai horretan sartzen da frankismoaren ondorioz irekitako abagune politikoa ere: alde batetik, Trantsizio gisa ezagutua den tartea, estatu-egituraren erreforma formala ekarri zuena —*burgesiaren dominazio beharren arabera*—; eta bestetik, benetako Trantsizioa, erreforma formal horren neurrikoa den kultura politikoa eta masa-ideologia sustraitzeko beharrezkoa den tarteari erreferentzia egiten diona.

Frankismoaren azken urteak masa mugimendu demokratiko zabalaren artikulazio urteak izan baziren, Trantsizioaren lehenengo fasearekin, edo fase formalarekin, mugimendu horien desartikulazio politikoa gauzatu zen —*estatu-konstituzioaren bidez*—, azkenik Trantsizioaren bigarren fasearekin beren erro sozialen desagerpena gauzatzeko. Baita Ezker

Abertzalearen oinarriena ere. Hau da, diktaduraren aroak masa mugimendu demokratikoen paradigma ireki bazuen, diktaduraren desartikulazio formalak horien agorpenaren aroa ireki zuen. Eta tartean, azken aro luze horretan, heriotzarako bide agonikoa, eta zalantzak. Oraindik ere zalantzak.

Paradigma berdinak ezaugarritzen du hein handi batean egungo euskal ezker sozialdemokrataren politika: eutsi egiten diote lastozko panpinari, «Erregimenaren» izenarekin, eta jarraitzen dute demokrazia estatalistarekin lotzen euren programa politikoa. Lekutan da, ordea, gatazka soziala —*horregatik disidentzia bat*—, eta horren lehergai soziologikoa, industriako langilea, biak ala biak Ezker Abertzalearen izaera historikoa determinatu eta bere barne-batasuna bermatu zutenak —*eta oraindik ere barne kohesio gisa erabiltzen dituztenak, nahiz eta gatazka antzeztearen bitartez izan*.

Industriak ehuntzen zuen urte horietan Euskal Herriko geografia. Horrek, langile-kolektiboa sortzeaz gain, haren kontzientzia —*eta antolakuntza*— baldintzak erein zituen. Gatazka kolektiboetarako osagaiak emanda zeuden: ehunka langile biltzen zituzten enpresak, burgesiaren botere autoritarioa eta eskubide urraketa sistematikoa gauzatzen zuen diktadura. Sindikalismoa bilakatu zen langile-borrokaren uneko paradigma, eta greba bere tresna erabiliarena.

Mugimendu demokratikoak, garaiari lotuak, eta garaikoa zen langile-klasearen soziologia espezifikoak izan dira, hein handi batean, Ezker Abertzalearen masa politikaren oinarria. Lehenak desagertu dira, Estatuak izaera formala hartzearekin batera. Bigarrenak kapitalismoaren garapen ekonomikoak deuseztatu ditu, zati handi batean

Masa mugimendu zabal horiek, beraz, kapitalismoaren garapen industrialak baldintzatuta zeuden. Ez ziren estrategia iraultzaile baten emaitza, edota ondo meditatutako mugimenduak, askok zabaldu nahi izan duen bezala. Zerbaitek desberdintzen badu garai hura guretik, antolakuntzari dagokionez, hori kapitalismoaren egitura ekonomikoak sortzen dituen antolakuntzarako baldintzak dira, eta ez konpromisoa edota grina bezalako balioak. Akaso horiek errealitate sozial determinatu batean sortzen diren balioak baino ez dira.

Horrekin zera esan nahi dut: estrategia iraultzaile baten emaitza baino, Ezker Abertzalearen garaiko indarra eta artikulazio gaitasunak erabat baldintzatuta zeudela uneko egoera orokorragatik, non borroka eta gatazka, hala nola interes intelektuala, handiak ziren ernaldu behar zuen gizarte berriaren berotara. Ezker Abertzaleak giro horretan bere estrategia zabaltzen asmatu zuen, eta horri etekina atera zion.

Edonola ere, egoera batean mugitzen asmatzea, eta egoera sortzea zein eraldatzea, gauza desberdinak dira. Azkeneko hori lortu izan balu, ez litzateke egun dagoen lekuan egongo. Ezker Abertzalearen estrategiak, gatazka garaietan, sustraitzeko gaitasuna izan bazuen, indeterminazioari aitortu behar diogu meritua, eta taktikan garaiko pentsamendu hedatuari egindako kontzesioei. Estrategiak, baina, porrot egin badu, hasieratik okerra zelako egin du porrot, ez elastikotasun taktikorako baldintzak desagertu direlako.

PARADIGMA FALTSUA

Segur aski, diktadurarik gabe, eta horrek borroka armaturako irekitzen duen aldeko abagunerik gabe, nekez irudika genezake ETA bezalako erakunde bat. Izan zuen begiruneak ere diktadura formalki desegin ahala beheranzko joera izan du etengabe. Neurri berean baldintzatu zuen garai horrek «nazio askapenaren» paradigma, eta haren sustraitze maila. Ez da harritzekoa, orain arte esandakoarengatik, lehenerako baldintzak desagertu ahala, bigarrenaren krisia azaleratu izana. Izan ere, zenbaitek ondorioztatu duen bezala, borroka desaktibatu ahala, euskal nazionalismoaren krisia handituz joan da.

Aipatutakoarekin, «nazio askapenaren» paradigmaren izaera menpekkoa eta koiunturala agerian geratu da. Paradigma baten krisia borrokaren krisiarekin lotuta ematen bada, horrek esan nahi du paradigma horrek ez duela borroka aktibatzeko gaitasunik, eta ondorioz, ez dela gai errealitatea ulertzeko, ez eta errealitatean eragiteko ere. Beraz, euskal nazionalismoaren krisia borrokaren desagertuarekin lotuta dago, baina borrokaren desagertzea ez dago lotuta euskal nazionalismoaren krisiarekin.

Diktaduraren garaiko aktore politikoei zuten ikuspuntuaz gaindi, «nazio askapena» frankismoaren aurkako programarekin lotuta agertzen zen masa zabalen begietara. Euskal Herria askatzea diktaduratik askatzea zen, oro har. Eta diktadurak zera esan nahi zuen: demokrazia eza, eskubide eza, langileen aurkako errepresioa, irrazionaltasuna... Era berean, «nazio askapenak» eta hari lotutako borroka paradigmak, kanpora begira, Euskal Herria anti-frankismoarekin identifikatu zuen, eta begirunea sortu zuen euskal nazioaren proiektuarekiko. Proiektu aurrerakoia zen, demokrazia oinarri zuen heinean, eta borroka moldeak onartuak ziren, diktadura baten aurka erabiltzen zirelako. Diktadura formalki deuseztatutzat eman zutenean ere, Trantsizioaren garai luzeetan, egon bazen justifikazio horretarako aukera; Trantsizioaren fartsak diktaduraren makillajea baitzekarren berrekin. Hortaz, borroka paradigma bat justifikatzeko, eta horri arnas emateko, borroka politikoaren garaiak ziren Trantsizioarenak, eta horrek azaltzen du gatazkaren aroa luzatu izana diktaduraren aro formaletik harago. Horrek eta garaiko egoera ekonomikoak.

Ez da nahikoa, beraz, Ezker Abertzalearen indargune historikoa «nazio askapenaren» paradigmarekin identifikatzea, azkeneko hori modu zuzen batean kategorizatzen ez bada. Esan daiteke paradigma hori izan dela nagusi mugimendu horren baitan, baina erreala zena, hau da, programa historiko bat, beste esparru batzuetan aurkitzen zen —eta beraz, «nazio askapenaren» indarguneez hitz egin beharko genuke, eta ez «nazio askapenaz» indargune gisa

Mugimendu sozial eta demokratikoen paradigmak —*eta nazionalismoak*— asko edaten du industria-langileen gatazken iruditegitik. Estrategia batek lan esparruko gatazkei etekina atera nahi badie, horien ebazpen politikorako marko aproposa erakutsi behar du. Marko hori, jakina, Estatua da. Eta estatu batek ez badu ebazpen hori ahalbidetzen, ezinbestean beste estatu-proiektu batek egingo du talka haren aurka. Espainiako Estatuan, Estatu barneko kontsentsua medio, ez zen bigarren estatu-proiekturik; hori izan zen «nazio askapenak» aurkeztu zuen aterabidea, ez izaera desberdina zuen Estatua aurkezten zuelako, indarrean zen Estatutik alde egitea proposatzen zuelako baizik. Oraindik ere indarrean dagoen saiakera, baina zailtasunak aurkitzen dituen bi estaturen arteko talka irudikatzen.

Lan gatazketan bere paradigma indartzeko bazka aurkitu zuen Ezker Abertzaleak. Horietarako soluzioa nazionalismoa zen, hots, Euskal Estatua eratzea, eta bere indar motore gatazketan ari ziren langileak berauek izango ziren, industriako langileak, alegia. Nazionalismoa eta obrerismoa, elkar loturik; ezerk ezin zuen hutsik egin.

Bada, mugimendu demokratikoak, garaia lotuak, eta garaikoa zen langile-klasearen soziologia espezi-fikoa izan dira, hein handi batean, Ezker Abertzalearen masa politikaren oinarria. Lehenak desagertu dira, Estatuak izaera formala hartzearekin batera. Bigarrenak kapitalismoaren garapen ekonomikoak deuseztatu ditu, zati handi batean. Ezker Abertzalearen krisia paradigma historiko baten krisia da, kapitalismoaren garapen neoliberalarekin batera ematen dena; eta kapitalismoaren azken krisiak, oraindik bizi dugun krisi horrek, ezarri du azken sententzia.

AMAIERA

Askok uste duenaren kontra, «euskaltzaletasuna», «nazionalismoa» edota «nazio askapena» ez dira izan hamarkadetan zehar borroka fase bat elikatu duten estrategiak. Ez dira borroka fase hori bere zabalean ulertzeko gaitasuna eskaintzen duten kategoriak ere.

Egia da Ezker Abertzalea, mugimendu nazionalista gisa, hein handi batean printzipio horien arabera antolatu dela. Baina printzipio horiek historian zehar bilakaera izan dute beren edukian eta esanahian. Nazionalismoa edota nazio eraikuntza deitutakoa aldakorra da, baina ez lege propioen arabera edo proiektu politiko sustantibo gisa. Izan ere, bere edukia ez da indar propioez ezta berezko teoria itxi baten barrenetik jaiotzen; ez da historia independentea duen mugimendua ere, histori-zatu daitekeen arren. Nazionalismoa aldakorra den egoera sozialarekiko menpekoa da. Nazio eraikuntza, azken finean, forma sozial eta politiko zehatz baten eraikuntzan datza, eta bere aldakortasuna —*forma sozialarena, baina baita nazioa eraiki nahi duen ideologia politikoarena ere*— agintean den forma sozialaren moldakortasunaren araberrakoa da.

Oinarri sinple hori distorsionatu egin du nazionalismoak, erreala dena nahiaren, ideologiaren edota nazioaren izate abstraktuarekin ordezkatzuz. Ez da nahikoa, beraz, Ezker Abertzalearen indargune historikoa «nazio askapenaren» paradigma-rekin identifikatzea, azkeneko hori modu zuzen batean kategorizatzen ez bada. Esan daiteke paradigma hori izan dela nagusi mugimendu horren baitan, baina erreala zena, hau da, programa historiko bat, beste esparru batzuetan aurkitzen zen —*eta beraz, «nazio askapenaren» indarguneez hitz egin beharko genuke, eta ez «nazio askapenaz» indargune gisa.*

Ezker Abertzalea ez da, hortaz, norbanakoek printzipio politiko batzuei egindako traizioaren ondorioz agortu. Kontrara, Ezker Abertzaleari, eta edozein mugimendu koiunturali, egin dakiokkeen traiziorik handiena bere izaera iragankorra ulertu ez eta hilotza artifizialki bizirik mantendu nahia da. Eta horretan ari da hegal ofiziala, eta baita bere disidentzia ere.

Estrategia ez dute aldatu, ezta printzipio politikoak ere: Ezker Abertzalearen oinordekoek «nazio askapena», estatualismoa eta demokrazia dituzte helburu —*sozialismoa beti izan da harentzat estatualismoa eta interbentzionismoa*—; baina helburu horiek ezin dira jada gatazkaren mozorropean agertu, haientzat esparru aproposa ireki baita instituziogintza burgesean eta Espainiako Estatuan. Autonomismoa ez da, beraz, hartu den erabaki bat, «nazio askapenaren» paradigmak ezinbestez hartu behar zuen forma baizik.

HASIERA BERRI BAT

Ezker Abertzalearen arrazoi historikoaren baldintza ekonomikoak eta politikoak agortutzat jo ditugu. Horrek, ordea, Ezker Abertzaleaz harago doazen ondorioetara garamatza. Oro har, sozialdemokraziak eta erreformismoak politika borrokalaria aurrera eramateko, eta horren bidez langile-masak lerratzeko, duten gaitasunaren krisiaz hitz egin dezakegu. Krisi hori kapitalismoaren fase garaikidearekin lotu dugu, gainera.

Hamarkada hauetan behera egin duena ez da grina eta borondate iraultzailea izan. Desagertu dena programa iraultzailerik gabeko itxurakeria iraultzailea izan da, hau da, sozialdemokrazia iraultzaile gisa azaltzea ahalbidetzen zuen testuingurua. Horri deitu izan zaio krisi kapitalistaren ondoko politika burgesaren krisia, zeina modu gordinenean agertzen den sozialdemokrazia-
ren haragitan.

Gaur ez da modu zuzenean identifikatzen den langile-kolektiborik, eta horregatik ere ez da bere izenean hitz egin dezakeen alderdi politikorik. Proletalgoa ezdeus eta gaitasunik gabe, politikoki baztertua eta sozialki menderatua, antolakunde propiorik gabe... aurkitzen da. Sozialdemokraziak zokoratu egin du ez diolako bere erreformen programa historikoari ekarpenik egiten: salbuespenak salbuespen, ez da berehalakoan lan gatazketan identifikatzen den kolektibo bat —*horregatik subjektu izatetik baztertu dute*— eta, ondorioz, ez da bitartekaritza politikorik gabeko gatazka —*ekonomikoa*— artikulatzeko gai, ez baitu lan esparrura mugatzen diren antolakunde kolektiboetarako —*sindikalismo erreformista*— baldintza objektiborik.

Proletalgoak nahi bezala baliatu daitekeen masa bizigabe bat izateari utzi dio, baina ez da desagertu; eta agertzeko, historikoki manifestatzeko, subjektu politiko komunistan antolatu behar du, edo ez da ezer izango. Proletalgoaren baldintza garaikideek politika inposatzen diote klase moduan antolatzeko baldintza gisa: erreformaren esparrutik, erresistentziaren esparrutik, botere politikoaren konkistara salto egitea. Azkenaren faltan ezinezkoa izango da lehenengoetan aritzea.

Erronka berdina dugu esku artean; azken hamarkadetan proletalgoak izan duen erronka berdina. Abiapuntua hasierako berdina da: porrot egin dugu, komunismoa sistematikoki baztertua izan da Ezker Abertzalearen baitan. Orain hasiera berri baten aurrean aurkitzen gara, baina oraingoan hori ez da soilik posizio etiko bat. /



ELKARRIZKETA

Antolakuntza komunistarantz partitu ginenekoa



**Aingeru Otxotorena,
Dorleta Agiriano
eta Isaak Ziaurritz**

Testua — ARTEKA
Irudia — Aitor Arroyo Askarai

Zirkuluetan bueltaka ibiltzearen susmoa izanda ere, inoiz ez da erraza bide berri bati ekitea. Are gutxiago, lotzen zaituenik baldin bada. Azken urteotan, susmo horiei helduta, bide berri bat urratzeko indarra, ikuspegia eta adorea bildu dituzte askok Euskal Herrian, eta horren adibide da Mugimendu Sozialistaren gorpuztea. Dorleta Agirianorekin (Zarautz, 1994), Aingeru Otxotorenarekin (Hernani, 1995) eta Isaak Ziaurritzekin (Iruñea, 1996) izan gara solasean, lehen pauso hura eman zuten gazteetako hiru.

Hasteko eta behin, koka dezakezue orain dela bospasei urteko zuen egoera militantea? Testuinguru ekonomikoaz, politikoaz eta pertsonalaz ari gara, batez ere: non gauzatzen zenuten zuen jardun militantea, zein zen garaiko militanteen baldintza ekonomikoa eta zein ziren militanteen arteko eztabaida eta kezka nagusiak?

DORLETA AGIRIANO: Unibertsitatean ikasten ari nintzela hasi nintzen militatzen; Ernai gazte antolakundean lehenengo (sortu berria zen), eta Ikasle Abertzaleak (IA) ikasle antolakundean gero. Dena den, urte horietan ikasle mugimenduan jardun nuen batez ere. Gurasoen etxetik eta nire herritik kanpo bizi nintzen ikasketak zirela-eta, eta unibertsitateko militantzia (IAN) eta herrikoa (Ernaian) elkar lotzen saiatzen nintzen. Beste asko bezala, garai hartan ohikoa baitzen bi espazioetan aldi berean militatzea.

Ikasle mugimendua, eta nagusiki IA, unibertsitatean indar handia hartzen ari zen garai batean hasi nintzen militatzen; ez baita kasualitatea nik eta beste askok hautu hori egin izana. Gero eta militante gehiago batu ginen ikasle mugimenduko espazio politiko desberdinetara, eta funtsezko eginkizuna izan zuen horretan IAK.

AINGERU OTXOTORENA: Garai hartan Ernaiko militantea nintzen ni ere. Esan daiteke gure herrian, Hernanin, betidanik egon dela kultura militante bat, eta 15-16 urte beteta pauso naturala zela militatzen hastea. Ni *Zuk-Gua* izeneko prozesuan hasi nintzen militatzen; gazte antolakunde bat sor-

tzea, gerora Ernai izan zena, zen prozesu horren helburua. Duela bospasei urte, zehazki, filosofia ikasketak ari nintzen egiten unibertsitatean. Geroz eta gertuago ikusten nuen lan-merkatura sartu beharko genuen unea, nahiz eta ordura arte ere tabernan edota eskola partikularrak ematen lanean aritu.

Zer geneukan argi orduan? Ez genuela sekula gure gurasoek izan duten bizitza hori izango. 2008ko krisiarekin gertatua oraindik oso gertu ikusten genuen, eta horrekin batera, argi genuen, esaterako, etxebizitza baterako sarbidea izatea ezinezkoa zela, alokairuaren prezioak ikaratzeko modukoak zirela; lan-gatazkak ugaritzen ari ziren, eta ez zegoen mugimendurik gure azalean bizi genuen hori guztia logika bakarraren barruan sartzen zuenik.

D.A: Uste dut orduan, barru-barruan, bagenuela kezka ikaragarri bat militante gazteok: ea egiten ari ginen lanak zerbaitetarako balio zuen, ea zerbait aldatu zezakeen, ea zetorrenari aurre egiteko balio zuen; ea egoki ari ginen. Eta gero eta gehiago hitz egiten genuen horretaz; unibertsitateetan, herrietan, espazio politikoetan. Gero eta arrazoi gutxiago ikusten baikenituen baikor izateko, esan dezagun, gero eta zailagoa zirudien errealitate ekonomikoari eta sozialari erreparatuta, eta horren aurrean egiten ari ginen lanaren gaitasun edo irismen errealarari erreparatuta.

ISAAK ZIAURRITZ: Nik Ikasle Abertzaleak antolakundean garatu nuen nire jardun militantea duela bost urte. Beraz, hezkuntza esparruari atxikituta egon da nire militantzia-lotura handiena. 2008tik 2015era bitartean,



Gero eta militante gehiago batu ginen ikasle mugimenduko espazio politiko desberdinetara, eta funtsezko eginkizuna izan zuen horretan IAK



faktore eta gertaera garrantzitsuak uzartu ziren Euskal Herrian. Alde bate-tik, Aingeruk aipatu duen modura, ga-rapen sozial eta ekonomiko kapitalista blokeatu zuen mundu mailako atzeral-di ekonomikoak, eta horrek ateak ireki zizkion bizi-baldintzekin eta lan-mun-duarekin zerikusia zuen fase mobiliza-tzaile berriari. Bestalde, Ezker Abertzalearen birformulazio estrategikoak une historiko berri bati eman zion hasiera gure lurraldean. Erdigunean zeuden bi

faktore horiek koka daitezke hurrengo urteetako aldaketa politikoen arrazoi modura.

Ezker Abertzaleak, estrategia ar-matua behin betiko amaitutzat ema-teaz gain, borroka instituzionala hege-monizatzea helburu izanda, bigarren maila batean kokatu zuen ildo mobili-zatzailea. Aldi berean, atzerapen eko-nomikoak zekarren biolentzia-igoerak behin eta berriz kokatzen zuen Ezker Abertzalea egoera deseroso batean. Ur-



Mobilizazioari eta antolakuntzari ekiteko momentu ezin hobe hartan, antolakuntza-adierazpen «ez ofizialistak» politikoki ahuldu edota xurgatu nahi izan zituen Ezker Abertzaleak. Hala ere, aspaldian ikusi gabeko antolakuntza-maila bat berreskuratzerira iritsi ginen



te luzez Ezker Abertzaleak bultzatuta-ko herri mugimenduaren jarduera eta ildo mobilizatzailea, orokorrean, alde batera utzi ziren estrategia aldaketarekin. Horrekin batera, herri mugimenduko antolakunde eta eragileek mobilizaziorako gero eta behar handiagoa atzeman zuten, gidaritza politikorik gabe geratzen hasi ziren bitartean. Hau da, Espainia eta Europa mailan eragin handiko mobilizazioak sortzen ari ziren bitartean (M-15, *Marchas de la Dignidad*, greba orokorrak, murrizketen kontrako mobilizazioak edozein esparrutan, hezkuntza erreformen kontrako grebak eta abar), Euskal Herrian nahi eta ezinean ari ginen. Helburua zen, gainera, ordura arte Ezker Abertzaleak hegemonizatutako ildo mobilizatzailea instituzionalizatzea.

Hala ere, eragile ofizialek anbigutasun orekatu bat mantendu zuten momentu hartan herri mugimenduari dagokionez. Hau da, bigarren plano

batean uztearen estrategia garatzen hasi ziren bitartean, zenbait une konkretutan horien defentsa inplizitua egiten zuten presio sozialaren eraginez. Anbigutasun horretan, oinarri soziala pozik mantendu zuten strategiaren helburuak guztiz kontrakoak ziren arren.

Garai hartako faktore garrantzitsu bat, hala, biolentziaren trataera izan zen. Gai horrek behin eta berriro jarri zuen Ezker Abertzalea soken kontra. Hezkuntza esparruan, esaterako, greba orokorretan edota mobilizazioetan izandako istiluek egoera berriak eragin zituzten instituzioetan. Gero eta ohi-koagoak bihurtu ziren «ofizialismoaren» salaketa publikoak hainbat ekin-tzaren ostean.

Guri dagokigunez, anbigutasun politiko horrek nahasten gintuela esan daiteke. Mobilizazioari eta antolakuntzari ekiteko momentu ezin hobe hartan, antolakuntza-adierazpen «ez ofizialistak» politikoki ahuldu edota

xurgatu nahi izan zituen Ezker Abertzaleak. Hala ere, aspaldian ikusi gabeko antolakuntza-maila bat berreskuratzerara iritsi ginen. Aurretik poliziak egindako sarekada masiboek eta koiuntura politiko orokorrak izua eta desmobilizazioa eragin zituzten gure aurreko belaunaldietan; nabaria da hutsune militantea gu baino 10-15 urte gehiago dituztenen adin-tartean.

Garaian oso nekeza zen «ofizialismoak» zehaztutako parametroetatik kanpo pentsamendu estrategikoa garatzea. Ez gara Ezker Abertzalera mugatzen. Izan ere, horren zuzeneko edo zeharkako eragin bidez, herri mugimenduaren teoria eta agenda ere zaku berean sartzen ditugu. Zein ziren denbora horretan «ofizialismoari» egiten zenizkioten kritika «primitibo» horien funts nagusiak? Eta kritika horiek egiteko zein erreferente intelektual zenituzten (egunkariez, webgunez, publikazioez, korrante teorikoez... ari gara)?

D.A. Ez da erraza garai hartan egiten genituen kritikak gogora ekartzea eta zehazki nola arrazoitzen genituen azaltzea. Baina aurretik esan dudanari lotuta, nik behintzat ideia bat oso presente nuen: «ofizialismoaren» baikortasunak harritu egiten ninduen. Baikortasuna aipatzean ez naiz ari militanteen ilusioaz, itxaropenaz edo halako sentimenduez; baizik eta ikusten nuela «ofizialismotik» gero eta modu tematia-goan aldarrikatzen ziren ulerkerek eta ideiek ez zutela gaitasunik askotariko krisiek markatutako errealitateari aurre egiteko, eta errotik aldatzeko. Gero eta nabarmenagoa zen «ofizialismoak» Estatuan integratzeko eta instituzio nahiz legalitate burgesetatik eragiten saiatzeko eginga zuen apustua, horrek zekarren guztiarekin; hau da, klase perspektiba gero eta gehiago lausotzea eta horretan oinarritutako programa politikoa nola-bait ahanzturan uztea, nagusiki.



Gero eta nabarmenagoa zen «ofizialismoak» Estatuan integratzeko eta instituzio nahiz legalitate burgesetatik eragiten saiatzeko eginga zuen apustua

Horrekin guztiarekin egin genuen topo militarren hasiak ginen gazte askok, eta bazirudien ezin genuela jada iraultzan sinetsi. Utopikotzat jotzen zela. Askori gero eta utopikoagoa iruditzen zitzaiguna, baina, «ofizialismoaren» apustu politikoa zen, erroko aldaketak nahi bagenituen behintzat.

A.O. Hasierako ezinegon, desadostasun edo kritika horiek hainbat auziri lotutakoak ziren, ni bezala, Ezker Abertzaletik gentozenon artean: mobilizazio ereduak, Sortu alderdiarekiko erabateko obedientzia, langile ikuspegiaren galera, borroka parlamentarioari gehiegizko garrantzia ematea, interklasismoa, amnistiaren afera... Puntu asko zeuden, modu intuitibo batean bazen ere, erraz ikus zitezkeenak.

D.A. Eta hala, eztabaida asko piztu ziren garai hartan; zer bide hartu zuen «ofizialismoak», zer egin zitekeen horren aurrean. Nik bereziki ditut gogoan *Borroka garaia da!* webgunean argitaratzen ziren testuak eta horien harira sortutako eztabaida luzeak. Eta, egin genezakeenaren jakin-minetik, asko batez ere korrante marxistetako testu klasikoagoetara jotzen hasi ginen, baita hamaika espazio formal eta informaletan eztabaidatzen ere.

A.O. Nik ere bereziki dut gogoan oso gertutik jarraitzen nituela *Borroka garaia da!* webguneko eztabaidak. Gero, atari horretan parte hartzen zuten hainbat erabiltzailearen testuak lantzen hasi ginen herriko kide batzuk, baita *Nahimen* aldizkariako zein Azpeitiko kideen *Kontu Lepo* proiektuko testuak ere; nolabait, gure intuizio horiei logika bat emateko saiakera bat zen hura. Azken urteetako esperientziak balio izan digu, besteak beste, hasierako intuizio horiek arrazionalizatzeko.

I.Z. Nire ustetan, bi auzi nagusi aipatu behar ditugu horri lotuta, nahiz eta askoz ere konplexuagoa izan orduan izan ziren eztabaiden konglomeratua: gidaritza politikoa baten beharra eta gure jardura politikoa nondik norakoak. Gai horiek mahaira ateratzeko ondorio garrantzitsuak izan zituen gure gaur egungo egitura poli-

tikoaren etorkizunean. Alde batetik, eztabaida politikorako eta ideologikorako espazioak ireki ziren, Euskal Herri mailan eragile eta norbanakoen arteko sareak eraikitzen hasi ziren eta, batez ere, elkarbanatutako paradigma politiko berri bati bide emateko lehen eztabaida politikoak gauzatu ziren, publikoki zein barne mailan, orduko sekzio politikoen artean. Bestalde, «ofizialismotik» kanpo kokatzen ziren militanteen kopurua gero eta handiagoa zen. Hala ere, modua ez zegoen argi.

Hiru tesi nagusi defendatzen ziren eztabaida horietan. Batetik, paradigma politiko berri bati bide egin behar zitzaion. Bigarrenik, Ezker Abertzale «ofizialistatik» kanpo kokatu, baino mugimendu soziopolitikoaren identitatea eta tesi politiko historikoak norbere gain hartu behar ziren (Euskal Nazio Askapen Mugimendua, ENAM). Hirugarrenik, Ezker Abertzale osoa, «ofizialista» barne, eraldatzeko nahia zegoen. Denborarekin, espazio politiko hori eraldatzeko eduki ahal genuen ilusioa desagiten joan zen; eztabaidatzeko debekuek, konformismoak eta gure garapen politikoak eraginda.

Herri mugimenduko zenbait eragile eztabaida horiek gauzatzen ari baziren ere, hortik kanpo ere baziren zenbait antolakuntza-adierazpen, batez ere, azken gai hori jorratzen sortu zirenak. Hau da, antolakuntza propioa garatzen hasi ziren «ofizialismotik» kanpo kokatzen ziren talde batzuk. Hala ere, adierazpen horietan zein herri mugimenduko eragile kritikoenetan estrategia eta antolakuntza bateraturik ez zegoen.

Eztabaidak hainbat urtez luzatu ziren, eta argituz joan ziren joerak eta antolakuntza-forma desberdinak. Herri Unibertsitateetako hitzaldiak, aurretik aipatutako *Borroka garaia da!* webguneko eztabaidak, UPV-EHUn egindako Ekonomia Politikoa Kritikari buruzko kongresua edota gaztetxeek eta bestelako eragileek antolatutako elkar-guneak eztabaidagai horiek garatzeko espazioak izan ziren, eta agerian geratu ziren Euskal Herrian zeuden posi-



Garai hartako eztabaidak, alde batetik, Ezker Abertzalearekin izan ziren maila intelektualean; baina bestetik, estrategia iraultzaile berri baten garapenari begira ere izaten ziren. Eztabaida horietako elementuak ziren, besteak beste, «estatu» eta «alderdi» kontzeptuen definizioa, interklasismoaren ezaugarritzea, egituraketa soziala, etapismoarekiko desadostasuna zentzu orokorrean, klase ikuspegiaren globalizazioa, (...) krisi kapitalistaren inguruko egiturazko hausnarketa... (...) prozesu dialektiko horretatik hasi zitzaion forma ematen etorkizuneko Mugimendu Sozialista formalari



zio politiko desberdinak. Luzea izango litzateke orain garai hartako posizioak azaltzea eta bilakaera aztertzea. Dena den, elkarbanatutako testuinguru hartan, mugarria izan zen Ezker Abertzalearekiko desadostasuna. Hortik aurrera, garatu egin ziren posizio horiek.

Garai hartako eztabaidak, alde batetik, Ezker Abertzalearekin izan ziren maila intelektualean; baina bestetik, estrategia iraultzaile berri baten garapenari begira ere izaten ziren. Eztabaida horietako elementuak ziren, besteak beste, «estatu» eta «alderdi» kontzeptuen definizioa, interklasismoaren ezaugarritzea, egituraketa soziala, etapismoarekiko desadostasuna zentzu orokorrean, klase ikuspegiaren globalizazioa (hau da, klase dominazioaren ulerkerak kontzeptu orokor interklasistak deuseztatuz), krisi kapitalistaren inguruko egiturazko hausnarketa... Hori izan zen, hain zuzen, Mugimendu Sozialistaren jaiotza ez formala; prozesu dialektiko horretatik hasi zitzaion forma ematen etorkizuneko Mugimendu Sozialista formalari.

Une hartan kohesio politikorik gabe eta dispersatuta zeuden norbanako eta eragileak modu formalean antolatzen hasi ziren, eta euren joeren integraltasunaren parte izaten hasi ziren. Hala ere, ez ditut joera eta antolakunde berri guztiak maila berdinean jarri nahi.





Nola aldatu da zuen ikuspuntu politiko/estrategikoa ordutik? Zein izan dira aurrerapen estrategikoa eta atzean utzi dituzuen ikuspegiak?

D.A. Isaakek azaldu duen modura, duela bospasei urte jende eta sektore askok kritikatu genuen «ofizialismoa», baina nik uste dut gehienok ez genuela oraindik guztiz ondo irudikatzen nola egin genezakeen «beste zerbait»; zer zen horri oposizio erreal eta oso bat mahaira ateratzea, eta nola eman genitzakeen pausoak gainean genuen guztiari oinarritik heltzeko eta aurre egiteko. Baina eztabaidek, teoria politikoaren lanketak eta hasiera bateko intuizioei ebazpen politikoak emateko grinak aurrera egin zuten, eta zenbait oinarri politiko berri jartzeko gaitasuna eskuratu zen zenbait sektoretan. Eta uste dut Isaakek aipatu duen Mugimendu Sozialistaren sorreraren eta garapen prozesuaren eskutik etorri dela, azkenean, aurrerapenik garrantzitsuena. Bizi dugun errealitatearen oinarrian dauden askotariko elementuak gero eta modu zehatzagoan identifikatzeaz eta seinalatzeaz gain, horrek guztiak estrategia politiko iraultzaile batean izan beharko lituzkeen inplikazioak bere gain hartu ditu Mugimendu Sozialistak, horretarako beharrezkoak ziren ezaugarritzeak eta zehaztapenak eginez, arduraz eta ausardiaz. Ez baita nahikoa «sistema» eta bere parte diren elementuak kritikatzeko, horiei aurre egiteak eta horiek gainditzeko duen esanahi politiko oso-osorik gure gain hartzeko prest ez bagaude, eta inplikazio horiek guztiek estrategia politikoan isla zehatzik ez badute.

Ez da posible erdizka ibiltzea, eta erdizka ibiltzea zen, hain zuzen, «ofizialismoak» ustez atzean utzitakoak «berreskuratzea». Lehen askok uste baikenuen irtenbidea zela «ofizialismoak» denborarekin baztertutako zenbait aldarri eta lan (klase perspektiba, «kalea», eta abar), nolabait, berreskuratzea. Baina auzia ez zen hori; oinarritzko premisak ziren berrikusi beharrekoak. Esango nuke, aurrerapen

Mugimendu Sozialista da aurreko ziklo politikoarekiko hausturan bere planteamendua egiten duen mugimendu bakarra. Bere ardatz nagusiak dira proletalgoaren independentzia politiko, horretara bidean ezinbestekoa den komunismoaren proiektu politiko historikoa berreskuratzea eta Euskal Herrian ditugun ezaugarrietara egokitzea, komunismoaren izaera internazionala galdu gabe





estrategikoei dagokienez, hortaz ohar-
tzea izan dela garrantzitsuenetako bat.
Hortaz ohartzea eta horrek esan nahi
zuen; tradizio batekin hautsi beharra
zegoela, nork bere gain hartzea. Eta,
kritika egitetik harago, guztiak ez ziren
urrats hori egitera ausartu.

A.O. Argi izan behar dugu, gainera,
bere mugak jo zituela Euskal Herrian
azken hamarkadetan izandako borroka
iraultzailearen zikloak. Horrek berekin
dakar bilakaera horren inguruko ira-
kurketa kritiko bat egitea. Eta uste dut
hori dela Mugimendu Sozialista Euskal
Herriko testuinguru politikoan topa
ditzakegun gainontzeko mugimendue-
tatik bereizten duen puntu garrantzi-
tsuenetako bat. Horrek esan nahi du,
benetan, Mugimendu Sozialista dela
aurreko ziklo politikoarekiko haustu-
ran bere planteamendua egiten duen
mugimendu bakarra. Bere ardatz na-
gusiak dira proletalgoaren independen-
tzia politikoa, horretara bidean ezin-
bestekoa den komunismoaren proiektu
politiko historikoa berreskuratzea eta
Euskal Herrian ditugun ezaugarrietara
egokitzea, komunismoaren izaera in-
ternazionala galdu gabe.

**Aurrekoarekin lotutako galdera.
Mugimendu Sozialista Ezker
Abertzalearen disidentziatzat
dakuzue edo bigarren horren
tradizioarekin (ENAM) haustura
bat dakar zuentzat? Zertan
oinarritzen da zuen erantzuna?**

D.A. Zalantzarik gabe, haustu-
ra bat dakar Mugimendu Sozialistak,
ENAMen oinarritzko premisa politi-
koak berrikusi eta bestelako oinarriak
eta aspirazioak dituen bide politiko bati
ekin diolako. Esango nuke Mugimendu
Sozialistak ez duela, beste zenbaitek
bezala, Ezker Abertzalearen ustezko
tradizio galdu bat berreskuratu nahi:
kultura politiko berri bat sortu nahi
du, iraultza komunista ahalbidetuko
duena.

A.O. Nire ustez, disidente izateak,
era berean zerbaiten parte izatea da-
kar berekin; hau da, estrategia oroko-
rrearekin bat egiten jarraitzea, nahiz eta

hainbat pauso taktikorekin bat ez eto-
rri. Gure kasuan, ez da inondik inora
ere horrelakorik gertatzen. Horregatik
esaten dugu haustura bat izan zela Ez-
ker Abertzalearekin.

Nabarmena izan da gure herrian
haustura horrek ondorioak izan ditue-
la plano politikotik harago, harreman
pertsonean eta abar. Baina hasieratik
genuen argi zintzoak izan behar ginela
gure buruarekin nahiz parte hartzen
genuen eremu politikoarekin, eta aipa-
turiko hausturak zekartzan ondorioak
onartu beharko genituela.

I.Z. Euskal Herrian, gutxitan bezala,
unibertsaltasunean oinarritutako inte-
graltasunaren ulerkera mahaigainera-
tu da. Iraultza sozialista helburu duten
premisak zabaltzen hasita, estrategia
berri bat, paradigma politiko berri ba-
tentzako. Estrategia mugatzaile eta an-
tolakuntza-forma zaharkituetatik hara-
go, Mugimendu Sozialistaren jaiotzak
zapalkuntza guztien erroa den sistema
kapitalistaren sunsipenerako lehenen-
go urratsak dakartza gurean. Nire ustez
ere ez da, beraz, Ezker Abertzalearen
ondare historikoaren jarraipenaren
mugimendua. Ez gara Ezker Abertza-
learen disidentziako militanteak. Mugi-
mendu Sozialistako militanteak baizik.

Izan ere, aipatu dudan momentu
historiko horrek, balio politikoak eta
estrategia ikuspegi ezberdin batetik
aztertzeke balio izan zigun Ezker Aber-
tzalearen espazio politikoan militatzen
genuen kide askori. Hainbat urtez, gai-
nera, espazio politiko berdinarengatiko
borroka etengabea egon da Mugimen-
du Sozialistaren, Ezker Abertzalearen
disidentziaren eta Ezker Abertzalea
beraren artean. Hala ere, agortu egin
beharko luke borroka horrek, estrategia
ezberdinen ondorio logikoa baita. Gure
espazio politikoak ez du mugarik, es-
trategia mugatzaileen ondoan.

Gaur egun, dena den, ulergarria da
nahasmena. Militantzia-eredua, kul-
tura edota zenbait egitasmo politi-
ko inertziak jaso ditugu, tamalez, eta
behin eta berriz erreproduzitzen ditu-
gu. Horregatik, garrantzitsua da Mugi-
mendu Sozialistaren belaualdi berriek

**Urrian egindako
Gazte Topagune
Sozialistak era ezin
argiagoan erakusten
du zein eratakoa
den Mugimendu
Sozialista sortzen
ahalegintzen den
militantzia eredua:
konprometitua,
formatua,
diziplinatua,
zintzoa, arduratsua,
arrazionaltasuna
gainjartzen duena...**

zein zaharragoek argi izatea paradigma politiko berri baten parte garena. Eta beraz, sozialismoaren eraikuntza ez dela aipatutako inertzia historikoetan oinarritzen.

Zein desberdintasun ikusten dituzue orain dela bospasei urteko militantziaren ezaugarrien eta gaur egungo Mugimendu Sozialistako militanteen artean? Badago garai hartatik hona ahaztuta geratu den baina berreskuratu beharko litzatekeen egiazko edo ezaugarriak?

D.A. Duela bospasei urte politiko-ki umezurtz sentitzen ginen militante asko, konbentzimendu osoz lan egiteko espazio politikorik gabe, eta nor jo behar zen guztiz garbi izan gabe. Frustrazioa sortzen zuen horrek, baina pizgarri bat ere izan zen; etengabe eztabaidatzeko, irakurtzeko, entzuteko, pentsatzeko, erantzun zuzenak bilatzen saiatzeko, buruan behin eta berri bueltak emateko. Emergentziazkoa zen.

Sekulako lorpena da, hain urte gutxiren buruan, Mugimendu Sozialistak hainbeste gazte batu izana, eta hainbeste gaztek hain gogotsu jardutea mugimenduan. Ulerkera politikoa partekatuta, eta konbentzimenduz. Baina uste dut badela, agian, berreskuratu beharreko zerbait, duela bospasei urte eta beharrak bultzatuta, hainbat eta hainbat gaztek barru-barruan sentitu genuena: etengabe ikasteko, inguruan gertatzen ari zena ulertzeko, egin beharrekoaz modu sakonean hausnartzeko eta anbizio osoz aritzeko grina. Oso zorrotzak ginen gure buruarekin, une politikoak eskatzen zuen mailari erantzuteko gai izango ez ote ginen beldur. Garaiaren latzak eskatzen du hainbeste gaur egun ere, mugimendu batean uste osoz lan egin arren. Jarrera, gogo, jakin-min eta anbizio aseezin hori ezin ditugu inoiz atzean utzi.

A.O. Nik esango nuke, dena den, oso militantzia-eredu ezberdinak direla garai hartakoa eta gaur egungoa. Hain zuzen ere, Mugimendu Sozialistak izan duen erronka nagusietako bat izan da hori: kultura militante berri bat sortzea. Proiektu politiko berri bat abiarazi baina kultura militante berdinarekin jarraitu izan bagenu, erreproduzitu nahi ez genituen gauza batzuk erreproduzitzeko arriskua egongo litzateke. Urrian egindako Gazte Topagune Sozialistak era ezin argiagoan erakusten du zein eratakoa den Mugimendu Sozialista sortzen ahalegintzen den militantzia eredua: konprometitua, formatua, diziplinatua, zintzoa, arduratsua, arrazionaltasuna gainjartzen duena... Noski, hori ez da egun batetik bestera lortzen den zerbait. Bestalde, uste dut sozialismoaren garapenerako balio duen edozein ekarpen jasotzeko edo berreskuratzeko prest egon beharko genukeela. Ezker Abertzaleak gauza asko egin ditu ongi bere historia luzean zehar, eta horiek ere kontuan hartzen ditugu.





**(...) komunismoa giza
unibertsaltasunaren
bake-harremanetan
oinarritzen den
heinean, horrekiko
lotura duen
taktika ere garatu
beharko dugu**

I.Z. Nire ustez, bestalde, datozen belaunaldien eta gure belaunaldien arteko ezberdintasun nabarmenena da batzuk sorreraren arduradun nagusiak direla eta beste batzuk sorrera eta gero militatu dutela. Horregatik, ardurarik eta eginkizunik nagusia belaunaldi zaharrenei dagokie. Guri dagokigu azaltzea tesi politikoak nondik datozen, nola iritsi garen zenbait ondorio-tara eta zein inertzia politiko eraldatu nahi ditugun. Paradigma politiko berri baten parte sentitu behar dira, espre-

suki, militante berriak. Zabaldu egin behar gara; orain arte baliagarriak izan zaizkigun zenbait taktika malgutu eta berri batzuei bide eman. Praxi iraultzailea teoria iraultzailearen eskutik joan dadin, kontsekuenteak izan behar gara gure egikaritze politikoan, eta hori transmititu behar dugu. Azken finean, komunismoa giza unibertsaltasunaren bake-harremanetan oinarritzen den heinean, horrekiko lotura duen taktika ere garatu beharko dugu. /

Argitaraturik
2021EKO AZAROAN
EUSKAL HERRIAN

Koordinazioa, Erredakzioa eta Diseinua
GEDAR LANGILE KAZETA

Web
GEDAR.EUS

Sare sozialak
TWITTER **@ARTEKA_GEDAR**
INSTAGRAM **@ARTEKA_GEDAR**
FACEBOOK **@ARTEKAGEDAR**

Harremanetan jartzeko
HARREMANAK@GEDAR.EUS

Harpidetza egiteko
GEDAR.EUS/HARPIDETZA


Edizioa
ZIRRINTA KOMUNIKAZIO
ELKARTEA (AZPEITIA)

Lege gordailua
SS-01360-2019

ISSN
2792-4548

Lizentzia



A large, stylized white outline of a lowercase letter 'a' is centered on a red triangle. The triangle's apex is at the top center of the image, and its base extends towards the bottom corners. The 'a' is composed of a thick white stroke, with a circular loop on the left and a curved tail on the right. The word 'arteka' is written in a white serif font across the middle of the 'a'.

arteka